

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

40


Aurkibidea: Jabier Kalzakorta: BALBINO GARITA-ONANDIAREN "DONIEL GABA". **3**. Miren Agur Meabe: GUTUNA PERE SALINAS PINTORE-ARI. **14**. Lourdes Unzueta: TELONERAK, TELONERAK BETI, KANTUAN. **17**. Jabier Kalzakorta: BORTHIRIGARAI EDO APEZ BELTZAREN K(H)ANTOREA. **19**. Xabier Zalbide: KOADERNO GOR(R)IA. **37**. Jon Arego: LESTEKO MOILA (II). **42**. Sebastián García Trujillo: BIZIRIK DIRAUIEN JAINKO HIL(ARAZI)A. **46**. LIBURUAK. **54**.

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Igone Etxebarria
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2005eko uztailean, Gestingraf S. A. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «5000 vignettes», «Trades» eta «laino guzien azpitik...» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngo
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura

bbk²

Balbino Garita-Onandiaren “Doniel Gaba”

SARRERA

1891ko irailaren 29an hasi eta bi egun gehiagotan, Durango ondoko Iurretan, *Euskal lore jokoak* ospatu ziren. Hiru egun hauetan zantzolariak, korrikalariak, pelotariak, bertsolariak eta idazleak, besteak beste direla, hartu zuten parte. Hiru egunetan ospatu ziren *Fiestas euskaras* direlakoek arrakasta handia izan bide zuten. Euskal jai hauek Iurretako Donieletan ospatu ziren bertako jaiari aparteko gorantza eman nahirik¹. Euskal jai hauetara Balbino Garita-Onandia (1857-1916) Durangoko abadeak² ipuin gisako narrazio bat bidali zuen. Ipuin hau, osterara, ez zen saritua izan eta egileak Edward Spencer Dodgson (1857-1922) euskalzaleari eman zion eta honek, urte bete baino lehen, Pariseko Bibliothèque National-ean utzi zuen³. Guk aldizkari honetako lehen atalera dakargun testu honek baditu, Mogelek zioen bezala, bere enkantu eta pameriak. Narrazio hau ehun urte eta hamabost urteko lozorrotik iratzarri eta aldizkari txukun honetako irakurle ohar-tuei eskeintzea pentsatu dugu.

Gure asmo nagusia lan hau argitaratzean testu duina eskeintzea izan da. Idazlearen zein testuaren zertzelada eta eraginez ez dugu berri handirik emango. Ez dago esan beharrik testuaren gaineko gure laneko argibideak ez direla hurbilpen saio txiki bat baino.

NARRAZIOAREN ERAGIN ETA ARGUDIOAREN GAINEAN

Narrazio hau Donieletarako edo san Migeletarako prestatua dagonez gero, gai berariazko bat pentsatu zuen egileak: Iurretako san Migeletan gertatutako mirari moduko bat. Iurretako edo inguruko mendizenak ere agertzen dira narrazio honetan benetasun bat eman nahirik. Hor ikusten dugu Garaimendi⁴ eta Leizarmendi deitzen diren mendiak. Baserri-izenak benetakoak diren edo asmatuak ez dugu jakiterik izan⁵. Mirari gisako hori alderdi batean baino gehiagotan ematen da. Egun argitsu eta eguzkitsuak euritara ematen du, narrazioan. Hau ez da mirari handia san Migel egu-

na dela kontuan izanik. San Migeletan, edo atzerago edo aurrerago, euri handiak egiten dituen uste zabaldua da, herri kulturaren. Euri-erauntsi edo ekaitz horri, Markinaldean, “san Migelen saragixek” esan ohi diogu. Mirari nagusia, ordea, Pagaduiko etxaguna, Donemieli laguntasuna eskatu ondoren, ez non eta ez han, Elgezuako etxaguntzaren aurrean agertzea da. Mirari hori gutxi balitz, Pagaduiko etxagunak barru-aldakuntza handi bat sentitzen du eta biziera berri bati ekin nahi dio bere semeak Jangoikoaren lotsan eta maitasunean haziz eta heziz.

Iurretako jaietarako testu honetako euskara-eredua Markinaldeko euskara literarioa da, ia ehuneko ehunean. Markinaldeko idazleen fonetismo berberak ikusten ditugu Garita-Onandiaren testuan ere. Markinaldeko idazleak diogunean, Markinako eskola literarioaz ari gara batez ere Juan Antonio Mogel, Prai Bartolome, Juan Jose Mogel eta Astarloa anaiak. Ez dago dudarik B. Garita-Onandiak Bizkaiko idazle klasikoak erabili zituenaren eredutzat. Balbino Garita-Onandiaren testuan idazle klasikoaren pasarte osoak ikusten ditugu, hitzez hitz aldatuak. Eman ditzagun pasarterik nabarmenenak. Astarloaren *Urteco Domeca II*, VI or. agertzen den pasarte hau “Guero duaz iguesi leguez euren aurreti, eta darabilez jarrai mendiric mendi. murutic muru, acharteric acharte, eta amiletatic amileta gustiz necatu, aricatu, arnasa baga, eta itoric gueratu artian” ikusten dugu Balbinorenean: *Taiju onetan kaden, bildur ta ikaraz beterik banenbillen mendiric mendi, murutik muru, atxartik atxarte, amiletatic amileta, emengo meakan larrapaztau, ango*

bide-zigorrian jausi, beste анги baten lurra neure gorputzaz neurtzen; estura onetan sen baga, konorte baga, zuzendu nayakon DONIELI, nirautsala (8). Markinaldeko eskola literarioko ereduak ez ezik, Arratiako Añibarroren pasarte bat edo beste ere ikus dezakegu. Hona, esaterako, *Escu-librua*⁶ lanetik aldatzen duen pasarteak: “Sortu nintzanic ona zabiltz nire laguntzan: berein esquer, ta mesede zor deutsudaz” (lehen edizioa, 9 or.). Balbinorenean: *¡San Migel aingeruen Leenena! sortu nintzanik-ona, berein esker eta mesede zor-deutsudaz.*(8). Hona aldatu ditugun bi pasarte hauek ia hitzez hitz ikusten dira gure testu honetan. Beste adibide polit bat Añibarroren *Escu liburua* berekoa “Deabru arerio gaistoak asmauco dituz sareac, laquioac ta amuac zu ondatu, ta galtzeco” (lehen edizioa, 81 or.): *deabru madarikatuak; banatu bere sareak, lakioak, amu ta asmuak: berba-baten, erruki zadiz nigaz gaur* (9). Ikusten dugunez, pasarte berbera apur bat aldatua erabili du, hitz bat gehitu eta paronomasia polit bat eginez: *amu eta asmuak*. Ohargarria da Añibarroren pasarteak txertatzen dituenean ez dituela Markinako idazleen erara aldatzen. Ez du *amu eta asmubak* idazten, ez eta *lakijuak* eta abar. Hizkuntzaren aldetik, esan dugunez, ia ehuneko ehuna da mogeldarra. Hitz asko Mogelen *Peru Abarca* lanetik atereak dirudite, nahiz eta orduan Durangaldean entzungo ziren ere: *txera, abegi eta arretondo*, esaterako, Mogelen ordena berean daude idatzirik⁷. Hitz mogeldar zenbait aipatzekotan *parlanzuban* egon (19), *peste, plaga...*

Argumentuari dagokionez, inori edo ezeri zor badio testu honek, Mogelen *Peru*

Abarca-ri zor dio. Mogelen *Peru Abarca*-n agertzen diren errefrau edo esaera zaharren tankerakoak dira testu honetako Martintxoren esaldi eginak. Ohargarria da, azkenik, Martintxoren aita ere Peru deitzen dela. Eta behin Martintxoren irakatsiak hartu ondoren, Antonek, Pagaduiko etxagunak, bere seme Juantxuri eta bere ogituko eta otseinei ere erakutsi ona emango diela.

TESTUAREN EUSKARA DELA ETA IRUZKIN BAT EDO BESTE

Testu honetan bi idazkera-eredu edo idaztankera darabiltza autoreak, orain dela ehun eta hamabost urteko elkarrizketa bizi eta aberatsa, batetik; eta sermoi gisako irakatsi luzeak eta kanta erlijiosoak, bestetik. Lehen eredu hau, elkarrizketa bizikoa hain zuzen, dugu atseginen gaur eguneko ikuspegitik. Elkarrizketa edo autu bizi hau bere garaiko euskara biziaren ispilu argia dela deritzagu, eta alde horretatik du bere balio nagusia testu honek. Eta ezerk harritu eta miraritu bagaitu, alderdi hori izan da. Iruzkindu ditzagun zenbait hitz eta esapide:

Has nadin bitxienarekin *dozenerdi arrautza izardituko deutsudaz* (10) ezin izan dut asmatu zer den. “Arrautzak izerditu” zer esan nahiko du galdetu dut neure artean behin eta berriz. Jo dut batera eta bestera argibide bila eta azkenean *Atlas etnográfico de Vasconia*-ko *La alimentación doméstica en Vasconia* liburuan⁸ aurkitu dut argia. Arrautzak izerditzea “arrautzak erretzea” da. Arrautzak sutondoan ere erretzen ziren. Arrautzak sutondoan jarri ondoren, sutako berotasunean izerdi-tantak

ateratzen zitzaizkion, eta hori erretzearen seinale zen. Behin arrautzak sutondotik atera ondoren, oskolean zulo bat egin eta zurrupatu egiten ziren zuringo-gorringo gogortuxeak.

Iruzkindu ditzagun zenbait hitz eta egitura, nahas-mahas. Interesgarria da guk singularrean erabiliko genituzkeen egitura batzuk pluralean agertzea: “gau onak emonik(10)”, “kendu nituzen luak (11)”. Polita da “dana” hitza singular hurbilean agertzea “danori ondaturik zagoz (10)”. Esaldi hau birritan agertzen da, gainera. Lehen aldia “dañori ondatu zara (9)”. *Hondatu* aditzaren sinonimoa izan daiteke modu ironikoan edo adierazkorrean esanda “ezkotu” aditza ere. Bitxia da, esaterako, “Ori da ostera ardi bigaitik artu dozun portua”. “Ostera” partikula indargarri da hemen eta ez du, ekialderagoko “ordea” partikularen zentzuaren bateratasunik. “Artu dozun portua” hori behin bakarrik ikusi dugu dokumentaturik hiztegietan eta “artu dozun trautua” esaldiaren baliokide izango litzateke. Harritu nau “diriana legez” bezalako esapideak ikustea testu honetan. Markinaldeko euskaran “*dirian legez*” delako eta Arratiako tradizioan, ostera, *diriana legez*.⁹

TRANSKRIPZIOA EGITEKO HARTU DEN BIDEA

Gure lehen asmoa testua dagoen dagoenean transkribatzea izan da. Baina orain arteko testuak sail honetan gaurko grafian daudenez gero, lorratz berean jarraitu nahi izan dugu. Zein irizpide erabili, beraz? Lehenengo eta behin, txistukarien nahasmen handi



Iurretako Mikel Deuna

samarra aurkitu dugu *aastuezcorra, iracaz-teco, uztela, bistu, onerazpenegaz, estandu, escotu, euztazan, euzten...* batetik, eta *urretzu, deutzudaz* eta abar, bestetik.

Garai bateko idazkerako *liorrac, daucat, meaca, nagolaco*, gaurko erara ekarri ditugu: *liorrak, daukat, mehaka, nagolako...* Harrigarria bada ere noizean behin, ez dakit zergatik, gaurko erara idazten du. Adibide bat bakarra ematearren: *lakioac* (9).

Echagun, echura eta horrelakoak ere gaurko erara ekarri ditugu: *etxagun, etxura*.

Testuko s gangarduna ere gaurko erara ekarri dugu: *goixeko* (bizkaieraz), *orixe* eta abar.

Duda handienak *pagaduyak, beguiyac* bezalako hitzetan agertzen den zorioneko -y- horrek eman digu. Markinaldeko idazleek erabiltzen zuten -j- batera ekarri ditugu: *pagaduijak, begijak...*

Bizkaiko tradizioan agertzen den moduan jarri ditugu *deutzudaz, distiatzu, urretzuacaz, eztitzu, gozatzu* bezalako hitz eta adizkiak. Modu horretara, *deutsudaz, distia-tsu, urretsuakaz, eztitsu* eta *gozatsu* transkribatu ditugu.

Puntuazioari dagokionez, jatorrizko zeinu guztiak onartu ditugu. Ataltxo honetan aldaketa nagusiak eman nahi izan ditugu eta bego, beraz, horretan.

DONIEL¹⁰ GABA

Milla zortzireun ta larogeta amargarren urteko, irailaren ogeta bederatzigarren eguna, da niretzat egun aaztuezkorra, egun gomutagarrija, beti nire bizitzak dirauan artian, begijen aurrian eukiko dodana. Goixeko seirak inguru ziran, eta Lope-n pagaduijan ziarduan erretxiñol batek zoli kantetan. Bere soñu eder gozatzubetara, nire biotza poztu, gozatu ta atsegindurik, irazartu nintzan, kendu nituzan luak, eta gauza guztien Egilliari nire arimiaren almen eta gorputzeko senak eskinirik, jagi nintzan; idigi-nituzan gelako leijuak ta; Oh gauza zoragarrija! iñoz ez legez (1) etorren distia-tsu arpegi betian eguzki ederra atx eta amileta¹¹ malkorren¹² ganetik, bere txinpar[t] urretsukaz, mendi, zelai eta basuetako arboladuijak orraztuten, eta lur girotxar¹³ eta elkorrenak gozatu eta oparotuten¹⁴ zitzuzala. Txoritxuak ebillezan iñoz baño soñularijago, gizonak euren lo-zorrorekin irazartu gurarik, guertau, prestatu ta ingiratu daitezkan Jaungoikuari eskerrak emotera, bera maitetu, bera alabatu ta bera serbietako egun barri bat emon deutzelako.

¡Oh egun ederra! ¡Oh egun gozua! ¡Oh egun eztitsua! ¡Agiri da, bai, gaur noren eguna dan! ¿Zeruko aingeruak artu egizubez arpak zeuben eskubetan, eta kantau eguzubez kantu-zoragarrijak; zerren gaur ospatuten (2) dan, bai zeruban, bai lurrian san Migel Goiangeruaren egun gozua. Orra

zergatik dagan gaur zerua pozgarri eta lurra zoragarri; guri irakasteko, zelan bera zeruan leijal gorde zan, Jaungoikuaren ondra eta gloriya ja[g]oteko, arako aingeru billau, dollor eta deslejalak jarki¹⁵ ziranean Jaungoikuaren kontra; alan gu bere leijal ta zintzo gorde gaitezkan Jaungoikuari Eleiza Ama Santiari, geure dierrijari, geure Euskalerrijari. ¡Mutillak gora, eta ariñ eleizara! ¡Matxalen, Matxalen, zu bere bai agudo Mezara!, zerren gaur dan DONIEL aingeru nausijaren eguna.

—Oraintxe, Aita.

—Bertatik¹⁶, ugazaba.

—Bai, senar maitia.(3)

—Silibistro eta ni geratuko gara letañoako Mezarako, eta zubek Eleizan zaren¹⁷ bitartean atarako doguz ganaubak mendira, eta gertau bere bai jatekuak.

—Ondo dau, Anton, eranzun eustan emazteak.

—Silibistro, Silibistro!

—¡Jauna!

—Artik itaija, ta ebagik bedarra beko soluan, ni artaldijaz *Garaimendiko* larrara noian bitartean, ta eure zeregiñak eiñ daijezanian, etorriko az nigana, alkarregaz juan gaitezkan DONIEL-go ermitara¹⁸ Meza entzutera.

—Ondo dau ugazaba.

* * *

¡Sancte Michael! Ora pol nobis!¹⁹

—¿Zer dok mutill? ¡Zer dan[t]zut?(4)

—Oraintxe dator letaña, jauna, erantzun eustan Txilibistrok.

¡Ora pol nobis²⁰!

—Guazen, bada, Meza entzutera.

Amaitu zan Meza santua, ta onegaz baita bere nire poz-atsegin gozatsuak. Asi zan tamboliña, asi zan dantza ustela edo kontradantzia²¹, gaur deituten jakona legez²², eta nire biotza estutu zan, samindu zan, mingoxtu zan, garrastu zan, eta asarre santu bategaz diar²³ egin neban: Antxiñako base-rritar garbi obi illunetan aazturik²⁴ zagozenok, biztu zaiteze, eta erdue negar egitera, ikusirik zertzuk egiten diran zubek ainbeste izerdi²⁵ ta oneraspenegaz jaso zendubezan ermita santubetan.

Soñuba ta dantza astunak (5) diriana legez²⁶ bizijuen illuntasuna, emakumen galdupena, aiñgeruen tristezija, ta diabruen piestia, esan neuntsan Silibistro neure otseiñari, guazen gu mutill Garaimendira, ta; oh aldakuntza supitukua! zeru urdiña estaldu zan bertatik, eguzki argiya illundu, atx eregijak lañotu, ta txori barritsuak²⁷ isill-isill euren eguak apal zitubezala abijaratuten. ¡Ah ze egija dan poz larregijak negarra dakardela!

Gaur goixean poz larregi euki dot, arratsaldean negarra pranko izango dot.

—¡Silibistro! batuik²⁸ artaldija.

—Bertatik, jauna; eranzun eustan, ta bitartean zuzendurik neure biotza zerurrunz, eguin neban oraziño modu onetan: ¡Jaungoiko altsu, ta ezetan muga edo neurrik ez (6) dozuna! emen ta leku guztietan arkituten zara; ez zakidaz, bada, gaur estal-

du neure begijetatik: egizu ibilli nadilla gaur ta beti zure aurrean edo goguan zaitudala.

—¡Ugazaba!

—¡Zer!

—¡Bi palta dira!

—¿Ardi bi?... Au da ostera daukadan lorra ardi peste orrekaz... ez daidan odolik berotu²⁹; plagia ernegau daijela³⁰.

—Bai, jauna, ardi bi palta dira.

—Ua, bada, artaldi³¹ orregaz etxera, ta bezkaldik³², nik palta diranok³³ billatzen dodazan bitartean.

Urten neban neure ardiñen billa, ta ¡Oh nire esturak! ¡Oh nire larrijak! ¡Oh nire biotzeko taupadak! zeruko odeijak eztan-du³⁴ ziran, ta lenengo zaparradan ezkotu nintzan bu (7)rutik bietzetaraño³⁵; lurrac egiñ eban dardariaz, baibendu jatazan belaunak; pitian-pitian agertzen ziran oñaztuaren argitasunak, lausututen eustazan begijak; trumoiaren zarata bildurgarrijak ikaratuten eusten neure biotza. Taiju onetan kaden, bildur ta ikaraz beterik banenbilen mendirik mendi, murutik muru, atxartik atxarte, amiletatik amileta, emengo meakan larrapaztau, ango bide-zigorrian jausi, beste angi baten lurra neure gorputzaz neurtzen; estura onetan sen baga³⁶, konorte baga, zuzendu najakon DONIELI, nirautsalala: ¡San Migel aingeruen Leenena! sortu nintzanik-ona, berein esker eta mesede zor deutsudaz. Gaur bere nigaz euki egizuz ardura aleguñezkuak: urrindu egizuz niganik arerijo gaiztoak; azpira (8) tu deabru madarikatuak; banatu bere sareak, lakioak, amu ta asmuak: berba-baten, erruki zadiz nigaz gaur. Eta orra ber-bertatik aurkitu-nintzan aingeru batzuen etxean, Elgezua-ko etxaguntzan.

Dan, dan, dan, eta bertatik erantzun eusten, ¿nor da?

—Pagaduiko³⁷ etxaguna.

—¡Ola! Anton,... ¿egualdi onegaz emetik?...

—Bai, Peru, ardi bi galdu jataz ta euren billa.

—Ori da ostera daukazun etxuria, ori da ostera ardi bigaitik artu dozun portua, dañori³⁸ ondatu-zara, Anton. Bertatik emongo yatzu³⁹ soñeco liorrak, ta baita-bere oe zuriya.

—Bijen premiña daukat, Peru, oraudio barausi бага nagolako, (9) bartgo apari izpiya[ga]z⁴⁰, ta gorputza nekatuta.

—¡Teresa! ¡Teresa! jatsixuz⁴¹ arin arkon-dara garbi bat, prakak ta abarka-txapiñuak.

—¡Bertatik! ¿erromeriyara zuaz ala?... Alagalako demporia dago Doniel-go zalaijan aurreku⁴² bat egiteko... ¿Zer da Anton? ein jatzu⁴³ ala egualdi onegaz onun[z] etorteko? danori ondaturic zagoz ¿arrañ artzen, ibilli al zara? Eutsiz soñeko lior onek, ta gela orretan aldatzen zaren bitartean, gertauko deusut apariya. Beingo baten eingo deusut berakatz sopa ederra, dozenerdi arrautza izardituko deusudaz⁴⁴, ta gero epeldurik oramai orretan dagan morokilla artuko dozu.

—Ondo dago Teresa.

Apalostian errosariyo santua errezauta, gau onak emonik, jua (10) nintzan oera. Peru amar edo amabi urte inguruko bere semetxua[ga]z geratu-zan sutonduan; andik urrin barik, goruetan bere emazte Teresa, andra dulabria⁴⁵ eguan.

Artega nenguan, lorik egin ezinda, baña laster biotza illunduten eusten burutaziñuak iges eiñ eben, arako Peru, gizon pres-

tuak, Jaungoikuaren bildur andiko gizonak, gurasuen ispilluak, zuzendurik bere seme Martintxuri esan eutsanian:

—Martintxo, bart ¿zer irakatsi-neuntsun?

—*Ara, Aita, erantzun eutsan semiak begirain⁴⁶ andiyaz.*

Jaungoikua aztertu gura dabena, azpiratu edo illundurik geldituko-da.

Leenago illunduko litzaateke eguzkija Elizia ondatu edo amaitu baño. (11)

Zelakua bizitzia, alakua eriotzia.

Grazijan azkeneraño diraubanak, izango dau zeruba.

¡Usteltasuna! zu zara nire gorputza; ¡aarrak! zubez nire arrebak.

Zorijonekua beti bildur dan gizona.

Ondo dau, Martintxo; orain guazen beste egi batzubez ikastera. Entzun zur ta arretaz.

Itxubak itxuba badarua bijak jausiko dira zulora.

Eruan daigun pensamentuba inpernura bizi garian artian, gero jua ez gaitezcan urten ezingo dogunian. (12)

Berbeta deungaak ustelduten ditube oitura onak.

Auak berba egiten-dau biotzeko ugaritasunetik.

Alperrerijac erakusten-dau gaiztakerija.

Askuen gatxa, tontuen poza.

Batuten bazara onakaz, ona izango zara: eta batuten bazara gaiztuakaz gaiztotuko zara.

Esan egidazu nogaz zabiltzan, ta esango deutsut nor edo zelakua zarian.

Esaten dabena maite dabela Jaungoikua, lagun projimuari gorroto deutsela, guzurtija da. (13)

Eleiziari entzuterik emoten ez deutsena, izango da zuretzat jentil ta publikanua leguez.

Bizi zaitetz Jesusegaz lurrean, bizi izateko beragaz betiraun⁴⁷ edo eternidadean.

¡Ze egi ederrak irakasten deutsazan Peruk bere semetxuari! ¡Ara or guraso ona! ¡jara or gurasoen modelena! ¿zer da nik neure Juantxuri irakasten deutsadana?

Ezer bere ez: arek ez dauka onako irakatsirik, bere⁴⁸ amak irakasten ezpadeutsa. ¡Ostera bere ibiliko naz ni gaur legez, neure semien otseñen, ta ogitukuen⁴⁹ arimen ardurara geijago ezpadeukat.

—Artega, jira batera, jira bestera, alakuen baten artu nindun luak. (14)

Bijaramon goixian, ollarren kukurru-kua[gaz batera jagi nintzan eta lurrian Jaungoikuari goixeko eskintzarijak egiteko, belaunbikotuz batera, sartu zan gelan, egunon esanaz. Martintxo etxeko mutilla; ta txera, abegi ta arretondo ona[ga]z esan eus-

tan: ¡Anton! artu egizu etxetik urten baño leenago, oramaijan dagan esnia, ta eguna zabaldu arte neuk lagunduko deutsut bidian.

—Ondo dau, Martintxo; bertatik naz zugaz.

¡Ondo lo einda, mutilko?

—Bai, Anton ¡zeuk bere bai?

—¡Majo!

—Eutsi, Anton, katillucada esne au, nik bere beste orrenbeste artu dot.

—¡Bapo! Guazen, oiñ. ¡Ze goizaldi ederra dagan! ¡Ze izarren ederra (15) dakusdan zeru goijan!

—Goixeko izarra; izar orrek, Anton, obraturen gaituz agurtzera zeru-lurreko Erregiña ¡Gura dozu, atzo baño gaur adu obakoa izan zaitezen, agurtu daigun geure Amarik onena, Jaungoikuaren aurrian bitartekorik eragillena?

—Bai, Martincho.

—Asi gaitezan, bada.

*¡Ea! Kantau eizube,
Ezpan ta biotzak
Birjiñ doatsubaren⁵⁰
Onra ta alabantzak*

*Erdu guri laguntzen
Birjiña zerutik.*

*Alegiñez gu gorde
Espiritu loitik (16)
Zaku[s]guz, Ama, zeru goijetan
Inguraturik izarrez;
Zure soñeko, zure jantziya
Ornitzen dirala altiztez;*

Munduko bazter, arkuntza danak
Betetan dozuz zuk pozez;
Gure biotzak bete eiguzuz
Zure grazija ederrez.

Egunsentiko izarra legez
Agertzen zara gugana,
Daka[r]zuzala bake santua
Zeruko doe laztana.
Paduretako loren antzera
Zabaltzen dozu ban-bana
Gizon guztien biotz danetan
Atsedeen dontsu dan dana.

Erdu, Birjiña ta Ama Dontzella
Gure biotzen erdira,
Pekatu deungak idigiriko
Zauri guztiai begira. (17)

Erdu, miritza, zu etorririk
Eruan gaizuz zerubetara
Zure ondoko tokira.

Poztu zaitetz, Anton; an Leizarmendiyan
zure ardi bijak.

—Izan bere. Ua, mutiltxo, etxera, ta
Jaungoikuak urte askuan gorderik, adu
oneko bat emajala.

Eskerrik asko, Anton, ta bardiñ zeuri
bere opa deutsut. Agur.

—Agur.

Tximistia legez, aldatzak gora, eldu nin-
tzan Leizarmendiko goenera, bidian uxatu-
ten nituzala neroian burrundadeaz, bai
eskumatatik, bai eskerretatik parlanzuban
ebillezan abere guztiak. Artu nituzan ardi
galdu bijak aurrian, ta eruan nituzan etxe-
ra. Adoratu neban nere emazte Matxalen,
erdi negarrez, erdi zizpuruka ta esan neu-
tsan: poztu zaitetz, galdurik egozan ardi
bijak(18) topau dodazalako, ta gaur Paga-
duiko etxagun[t]zan sartzen dalako osasu-
na. Gaurtik aurrera, Matxalen, bizitza
barrija. Bartgo gaba etxetik kanpora egon
arren, ez dot alperrik galdu, ez nazalako
egon ez ardantegijan, ez joku etxian, ezpada
etxagun on, prestu, santu ta jakintsu bate-
nian. Emen ikasi dot, zelan neure semiak
azi, zelan otseñai kontu artu, zelan auzuai
begiratu, zelan lagunurkua amau, zelan
Jaungoikua serbidu, berba baten zelan geure
arimak salbau.

—Orretakoixe, Anton, Jaungoikuak (19)
mundu onetara bota ginduzan geure arimak
salbetako: orixe da gure azkena.

—Jaritxi daigun bada

Balbiño Garita-Onandia-kuak
Lema (Extrema gaudiu fletus occupat.)
(20)

¹ Sariketa honen gorabeherak ikusi nahi dituenak jo beza Ricardo Becerro de Bengoaren “Concurso eúskaro de Yurreta”, *Euskal Erria*, 1891, XXV, 329-331 or. Idazleei dagokien pasartea hau da: “En el certamen literario de este día, destinado á premiar las mejores poesías escritas en lengua bascongada, obtuvieron la victoria: don Francisco Lopez Alen, de San Sebastian, por sus composiciones *Duvoisin Jau-naren oroimengarriari* y *Maitechoren Eriotza*; D. Felipe Arrese de Ochandiano, por la titulada *Biargiñ alegere bat*, y D. Ramos Azcarate, de Tolosa, por la que escribió con el lema *Leyaltadea ezta diruz pagatzen*. Dió lectura de ellas, en medio de aquella entusiasta concurrencia, el gran poeta bascongado señor Arrese, escultor de Ochandiano.” Prosari buruzko berririk, berriz, ez dakar.

² Berak euskal fonetismo ezagunaren legea dela eta *Balbiño Garita-Onandiakuak* izen-deiturak erabilirik izenpetzen zuen, testuaren azkenean ikusi daitekeenez.

³ Testu hau, esan dugun bezala, Pariseko Bibliothèque Nationaleko Celte et Basque saileko 107 zenbakian agertzen da (Celt et B. 107). Dokumentu honek autore beraren olerki eta eliz-kanta gehiago ere agertzen ditu. Horiek hurrengoan beste lantto batean emango ditugu argitara. Dokumentuan Dodgsonen letraz zehaztasun batzuk daude. Hasieran “Manuscrit de 20 pages en dialecte Biscayen”. Izenburuaren ondoan (Doniel gaba) hauxe dio Dodgsonek: “La Vieille de S. Michel” eta ondoren “N’a pas été couronné aux fêtes de la S. Michel à Yurreta 1891”. Hau da, “ez du saririk lortu 1891ko Iurretako Doniel jaietan”. Autorearen sinaduraren ondoren azalpen hau jartzen du Dodgsonek: Vicaire à Durango en Biscaye. Eta Dodgsonen azken ohar hau: “Présenté par l’auteur à Ms. E. S. Dodgson et par moi à la Bibliothèque Nationale de France ce 25 Mars 1892.”

Eskuidatziaren 20 orrialdeak guk geuk ere geure transkripzioan markatuko ditugu parentesi artean.

⁴ Garaimendi hau gaur egun udalerrri den Garai gaintxoan dagoen menditxoa izan behar du, itxurak direnez.

⁵ Bi baserriak Elgezu eta Pagadui dira. Ezin izan dugu jakin Iurretako benetako baserriak diren edo autorearen irudimenean daudenak. Mogelek, esaterako, Landeta izendatu zuen Peru Abarkaren baserria. Landeta ondo dokumentatua egon arren Euskal Herrian, ez dirudi Markinako baserria denik.

⁶ Lehen edizioan, 1802koan, *Escu-librua* izen nagusia eraman zuen gerokoetan *Esculiburua*. Izenburu osoa jakin nahi izatera: *Escu-librua ta berean eguneango cristiñau-ceregiñac A. fr. Pedro Antonio Añibarroc, Zarauzco Colegio A. San Franciscoren Ordeaco Misionariac Bizcaico eusqueran ifini dituz*. Tolosa: La lama, 1802 (Vici bedi Jesus).

⁷ Mogelen *Peru Abarca* lanean, 73 or., *Egiten deutsegu abegi, jera ta arrera txito ona dator*. Mogelek jasotako hitza da *arretondo* ere. Hiru hitzak jartzeko ordena, beraz, mogeldarra da. Baliteke herri-hizkerako esapide egin bat izatea ere, baina bigarren bide hau nekezago ikusten dut.

⁸ 256. orrialdean honelaxe dio: “(Asados en el rescoldo) Un procedimiento primitivo de preparar los huevos consistió en colocarlos al rescoldo del fuego del hogar. Cuando el huevo comenzaba a exudar, *izerdie botaten* (Zeanuri-B), se retiraba y se sorbía. Por este procedimiento se obtenía un resultado similar al conseguido pasando el huevo por agua. Esta técnica de preparación se utilizó tanto en casa como en el monte.”

⁹ *Diriana legez* edo *direana legez*. Kontua hemen -A delakoa dugu. Arratiako euskararen ezaugarria da *danA lez* eta abar.

¹⁰ San Migel esateko era zaharra zalantzarik gabe. Herri-hitza izan behar du, *Doniene* “san Juan” esateko era zaharra den moduan.

¹¹ Amildegi hitzaren baliokide. Astarloak darabil bakarrik bere *Urteco domeca* obran. Testu honetan geroago ere agertzen da.

¹² Adjetibo polita da. Nonbait eguzkia Atxartetik ateratzen da durangar eta iurretarrantzat. Eta eguzkiaren ateratze hori ezin hobeki adierazota.

¹³ Lur zeken, gogor eta astuna esateko. Hitz hau ez dugu inon topatu baina herri-hitza da, itxura guztiak direnez.

¹⁴ Hitz larramenditarra da, itxurak direnez. Hitz honek, ordea, herri-hitzaren itxura ere badu. Larramendirentzat oparotu “ugaritu” baino gehiago “fertilizar” esan nahi du. Agertzen dira hitz larramenditar garbiagoak gerora: dierri, altiste...

¹⁵ Altxatu, aurre egin. Askotan agertzen da mendebaldeko tradizioan. Gaur egun ere erabiltzen dugu markinar batzuk.

¹⁶ Hainbat aldiz agertzen da “bertatik” berehala esateko. Hitz honen indargarria, *bere-berehala* den moduan “berekala”-rena: ber-bertatik.

¹⁷ Adizki zaharra “zuek zara” da dirudienez eta ez “zuek zaree”. Pluralgilea izenordera etorri zan baina artean adizkia aldatu gabe.

¹⁸ Beti agertzen da Donielgo ermita, baina ez dago holako ermitarik Iurretan. Eliza nagusia da Donielgo eliza. Sorlana edo sorkaria denez, Iurretako errealtatearekin ez du zertan lotura bete betekorik izan behar...

¹⁹ Autorearen oharra: Emengo bazarritarrac diñuen leguez.

²⁰ Aditzera eman didatenez, Migel Unamunokoak ere herri xeheak egiten duen latinaren erabilera barregarria adibide honekin irudikatzen du, bere lanetako batean.

²¹ Kontradanza frantsesetik omen dator “contredanse”-tik eta hau ingelesetik “country dance”. Dantza oratu edo balseo bakarria zenez, horrexegatik dio “ustela”.

²² Arratiar erara. Bizkaiko mendebaldean, ostera, *jakon legez*.

²³ Deadar hitzaren laburdura. Gaur egun ere antzera esaten dugu Bizkaiko mendebaldean: diar/dier eñ.

²⁴ aazturik edo anzturik dator eskuidatzian? Nik lehena irakurtzen dut.

²⁵ Nahiz eta geroago “izarditu” aditza erabili hemen “izerdi” ikusten dugu.

²⁶ Hemen ere arratiar erara: “diriana legez”.

²⁷ Jatorrizkoan “barrichuac” dator. Guk, dena dela, *barritsuak* transkribatu beharko genuke?

²⁸ Hikako forma, *batu egik* batetik datorrena.

²⁹ Herri esakera jatorra, itxurak direnez.

³⁰ Mogelen denboran Markinaldean asko erabiltzen zen *plaga* hitza madarikazioetan. Hitz honek

deabrua edo holako izaki bat adierazten du madarikazioetan.

³¹ Ondo konturatzen bagara, bi aldiz dator *artaldi* eta ez, uste den bezala, *artalde*.

³² Gaur egun ere halaxe diogu toki askotan, *bazkaldu egik* batetik dator.

³³ Adizki honen ondoren koma dator. Guk testua ulargarriago gerta dadin kendu egin dugu.

³⁴ *Eztanda egin, errementatu* ulertzen dugu. Eskuidatzian “estandu” irakurtzen da.

³⁵ Esapide jatorra. Klasikoek, Mogelek esaterako, *burutik beatzera* erabiltzen zuen, behatz hitza singularrean dela (buruz ari naiz).

³⁶ *Konorte gabe* esateko egitura polita.

³⁷ Jatorrizkoan.

³⁸ Halaxe dator lehen aldian. Bigarren aldian “danori” ikusiko dugu.

³⁹ Hemen “yatzuz” uste genuen baina ez da pluralgilerik agertzen.

⁴⁰ Hemen *izpi* adjektiboa da. Arratialdean *iski* erabiltzen da gaur egun ere. *Orotariko euskal hiztegian* ondo dokumentatua dago iski: apari iski. Batez ere eguneko hiru otorduekin erabiltzen da gosari-iski, bazkari-iski eta afari-iski. *Bartgo apari apurragaz* adierazi nahi du.

⁴¹ Halaxe dator eta ez *jatzizuz*. Esan beharrik ez dago -tz- guk -ts-ra ekarri dugula. Jatorrizkoan *Jatzi* da aditza.

⁴² Jatorrizkoan “aurrezco” hitza dator.

⁴³ Hemen *locutio praesens* bat dago: (gogo) *egin jatzu...* Esaten ez den hitzen bat ulertu behar da. Hitz hori “gogo” izan daiteke.

⁴⁴ Egun bat jan barik dago Pagaduiko etxaguna. Aurreko gauean gutxi jan duenez gero, oraingoan afari ikaragarri handia emango dio berakazopa, dozenerdi arraultza izerditurik...

⁴⁵ “dulabre” hitza sendoa da. Mogelek dakar batez ere.

⁴⁶ Halaxe dator testuan “begirune” esan nahi du. Ez dugu aldaera hau beste inon ikusi.

⁴⁷ Lehen idazketan “iraun” idatzi du eta gero aurretik “beti” jarriaz: “betiraun”.

⁴⁸ Jatorrizkoan “bere amak” dator. Aldaera gurea da.

⁴⁹ *Ogituko* Gainean letra txikiz “dontsuaren” dator, baina “doatsubaren” ez du ezabatu.

Gutuna Pere Salinas pintoreari

Bilbon, 2004ko azaroaren 12an

Pere estimatua:

Gutun hau idazten dizut, ezagutzen ez bazaitut ere, modu aproposa iruditzen zaidalako bion laguna den Joan Navarroken eskaerari erantzuteko. Gonbita egin zidan zure *Geografia del silenci IV* pinturari buruzko zerbait idazteko. Urtean lau aldiz jasotzen dut, urtaro bakoitzarekin batera, Joanen aldizkaria, posta elektroniko bidez. Esperantza dut Joani ez zaiola enkargua damutuko, eta zu zeu jasankorra izango zarela testu honekin. Hasteko, esker ona agertu behar dizuet bioi: Joani, ariketa hau eginarazteagatik, eta zuri, koadro hori sortu izana, nire bizimodu arruntari —noiz eta orain— ekarri dizkion ondorioak ezin izango baintuen inoiz irudikatu.

Isiltasuna badela ezin ukatu. Eta isiltasunari geografia esleitzea sinestesia zeharo baliagarria da hauxe adierazteko: isiltasuna alor intimo eta berezia dela —puntu kardinal aldagarri duna—, non zerbait hozitu egiten den lurpean erdi agerian dagoen errabola bezala, eguzki eta aire eske garatzen baita zenbait erantzun loratzearren.

Horrenbestez, esango nuke isiltasunaren geografia ez dela luzera-unitateen bidez neurtzekoa, hala nola oin, metro edo milien bidez, denbora-unitatetan neurtzekoa baizik. Une jakinetan, isiltasunak isolatu egiten gaitu garrantzitsua denaren esentzia igar dezagun. Esan nahi dut isiltasuna ez dela kontzeptu aseptikoa; kontrara: denbora dimentsio integratzailea izan dadin ahalbidetzen du. Hara:

Berrogeita bi urteko abokatua naiz, eta funtzionarioek egindako falta larriak espedientatzea dut zeregina. Lanbide garratza da, egitekoak taxuz burutu nahi eta botereak oztopoak jartzen badizkizu, behintzat. Alaba bi dauzkat, bederatzi eta hiru urtekoak. Haiei eskaintzen dizkiet indarrak gehienak. Gainerakoan, itsasoaren usaina, bizikletaz ibiltzea, saltsa dantzatzea eta lagun apurrak mahai eder baten inguruan biltzea dut atsegin.

Orain dela bost urte sekulako ukaldia izan zen amaren bat-bateko heriotza. Goizean gaixotu eta arratsaldean hil zen ebakun-

tza-mahaian. Orduetik hona, amaren etxeko geletan barrena ibili izan naiz, hari lotuta irauteko hari baten bila. Ez zen aski oroimenaren kordoa; oroitzapenak baino xingola fisikoagoa behar nuen, edozein unetan haztakatzeko modukoa, umezurtz geratzen garenean oinpean zabaltzen zaigun bidezidor malenkoniatsuan ez desbideratzeko. Zeuri esker aurkitu dut heste hori, Pere, zure koadroak amaren koloreak dituelako. Ama pintorea zen.

Egon ez dago antzik zure pinturaren eta amarenaren artean, amaren estiloa figurati-boa baitzen, eta koloreen paletan iparraldeko argilunak eta eguneroko gaiak nagusitzen baitziren. Misterioa askoz xaloagoa da eta —hau paradoxa hau—, irmoagoa: zure *Isiltasunaren geografia* horretan ageri diren formen anabasak amak pintzelak gordetzeko erabili ohi zuen potoko pintura-erreaktxoak gogorarazi zizkidan.

Ama baserrian lurperatuta dago —haren erratsak—, alabak jolasten diren eta txakurrak pixa egiten duen txokoa, arrosodoen artean. Oraintsu arte, ni sartu eta irten egiten nintzen baratzerara, eta hitz egiten nion. Edozer esaten nion: osasungarria da hildakoekin berba egitea... geureak direnean, jakina. Berak isilik irauten zuen, eta ni beti hizketan, euriak begietan sustraiak bota nahi zizkidalarik, eta paisaian batzen ziren grisen eskalari amaren altzo mutua irizten nion.

Umetan, etxera iristen nintzenean, ama ikusten nuen bere koadroekin auskaka. Barreka egiten zuen auskaka eta, borrokaldian zehar, haren besoek petaloak pitxerretan eta ur-zipriztinak txalupen kroskoetan zabaltzen zituzten bi hego ematen zuten. Ekintza horretan, amaren bihotzeko min-

gosturak diluitu egiten ziren agoarrasaren lurrina lagun. Urteetan zehar pintatutako koadroak etxean sakabanatuta daude, baina langela itxita eduki dugu —min handiegia begiratzera soilik sartzeara— ama hil zenetik... zure margolana ikusi nuen eguna arte. Horri behatu nion unean bertan igarri nuen atea ireki eta behingoz sartzeko bulkada.

Topikoa irudituko zaizu keinu horretan ipintzen dudan enfasia, egokiagoa bailitzateke suspentse-ipuina baterako, baina nago ulertzen didazula: “atea irekitzea” diodanean ez naiz ari gelako atez, beste ate alegoriko hauez baino: ate sentimentalaz, edozein gizalabak, hazi nahi badu, zeharkatu behar duenaz, batetik; eta bestetik, ate ezezagun eta arriskutsuaz —atzealderik gabeko ispi-luaz—, edozein sortzailek zeharkatu behar duen horretaz, izan poesiaren azalaren bila, izan musikaren errezelaren xerka, edo artearen substantziaren ondorik, oro har.

Bakarrik nengoen goizeko ordu txikietan. Langelan sartu nintzen eta tresnak garbitzeari ekin nion, konpultsioz. Bazter batean amak estreinatu gabeko oihal bat zegoen, taula isil bat, agur bat (?). Palangana ur berroz bete eta beratzen ipini nuen dena. Pintzel laztuek eta espatula uhertuak erpeka egin zidaten gogoan, baina aurrera egin nuen. Zurezko mahaia igurtzi nuen. Banan-banan garbitu nituen, zapitxo heze batez, olio-tututxo desitxuratuak. Ez nien maina gehiago egingo izaki bizidunak izan balira, aberetxoak edo haziak. Negarrez aritu nintzen, etengabe.

Ez ezazu pentsa “garbikuntza-esperientzia” hark —barreka nago, ez bainaz horren mistikoa— goitik behera aldarazi ninduenik. Baina ukitu bai, ukitu ninduen: orain ia-

ia eskultorea naiz, saseskultorea. Buztina erosi eta modelatzeari lotu nintzaion. Zergatik ez nuen jo gakorratz-lanak egitera edo gimnasioan izerdiak botatzera? Arrazoia zoragarria da: esku-trebezia deskubritu berriaz baliatzen naiz irudiak egin, eta ondoren, amaren tresnekin koloreztatzeko.

Zure margolanak bultzatuta egin nuen bidea pintzelen pota nahaspilatura, eta pintzelak libratzean, amaren usainak gora egin zuen, neure buru ondoan hegaka zebilen iratxo baten antzean, eta isiltasuna geografizatu egin zen: amaren ahotsak mugarrizten du. Pinturaren usainak, erabateko isiltasun hartan, amaren berotasuna, ironia, bizitasuna hautemanarazi zizkidan, artean atrofiaturik nituen zentzumen espezifikoak aktibatu balitzaizkit legez. Geure-geurea da isiltasun hori, aberatsa da, primerakoa. Hedaturaz txikia da, alabak eskolatik datozenean edo telefonoak jotzen duenean bukatzen baita: “ateetan” inguru-minguru beste inor dabilenean, isiltasuna hustu egiten da, eta nire eskuek ezin dute solasean egin buztinarekin.

Nire irudiak samurrak omen dira: andre-ak titia ematen, sareginak ortozik, trenbideko torlojuei besarkatutako gorputzak... Hala ere, ez da samurtasuna emakume horien ezaugarri funtsezkoa, hazpegiarik gabeko aurpegiaren egonarria baizik, beren baitan biltzeko jarrera bizitzari tiraka daudela, kontinente bati tiraka bezala: isiltasuna entzun nahirik daude egon.

Feministaren batek —nire lantxoak ikusiko balitu, baina ez dut uste hori jazoko denik—, kritikatu egingo ninduke tradizioz emakumeari esleitu zaion espazioaren okupazioa erreproduzitzeagatik; izan ere, emakumea bere txoko pribatura bakartzen da, hortxe sentitzen baita juzkueatik babestuta, edo urduritasuna edo lotsa sortzen dioten begiradetatik salbu. Neure alde esango dut niri balio didala —berriro ere topiko bat erabiliz— iraganak orainari etorkizun bilakatzen uzten diola sentitzeko.

Eskerrak ematea besterik ez. Mila esker, mila esker, mila esker.



Telonerak, telonerak beti, kantuan

Hego-haizea ebilen gaugiro ederrean eta berak ekarren doinuak gozo-gozo zeharkatzen eban kazetari gazte asko ikusitakoaren belarri mintza. Kazetari gazteari gazteago zaneko sasoietan entzundako doinuak gogorazoten eutsazan hego-haizeak ekarrenak eta, ia konturatu be egin barik, bihotzerainoko bideari ekin eutsien doinuok. Bere bihotza, baina, blindatuta egoan egon eta doinu gozoak oihartzun bihurtzea beste erremediorik ez eukan, holan, belarri fin-fin batek baino entzun ezin eikean doinu hotsak gaugiroa betetzen eutsala.

–Estutu naizu zeure beso artean, zeure bihotz taupadak hobeto entzun eta sentidu daidazan –horixe dinotso gaztaroko lagun minak gazteago izandako kazetariari.

Berbok entzuterakoan buruari buelta damotso Anderrek eta bere aurrean dakus aurpegi irribarretsua, hango begi biziak, gorputz arruntean untzatuta dagozan begi untzatzailak berari begira, bat-bateko argi biziak bailiran, inguruan legokeen guztia ikustezin bihurtuz, Ander bera bakarrik zala ikusgai, ikustea mereziduko eukean gizaki bakarra.

Eskua luzatu eta behinola maite izandakoaren gorputza ikutu eta estutzeko zorian dagoala, gazte aldra bat, neska-mutil gazteak jatorkoz kontrara, zaratatsu eta barritsu, eta hantxe, bide erdian, garden bailitz, bakar-bakarrik ixten dabe.

Izan be, danok doaz hego-haizeak dakarren doinu gozoaren sorlekurantz, batzuk, aspiragailu indartsu batek, bentosa modura, zurgatuko balitu bezala, beste batzuk, Anderren moduan, doinu kilikagarriak ezinbestean emeki-emeki erakarrita.

–Esan eidazuz zuk zeuk bakarrik dakizuzan berbatxoak belarrira –horixe dinotso orain aspaldiko lagun minak gazteago izandako Anderri.

Maitearen ahotsa nondik datorren ardura ez deusala, eskatutako berbok esateko da Anderren ahots epela, behinola esan barik gelditutako berbok behin eta barriz esateko. Ezpainak hurreratzen deutsoz haren belarri dotoreari, entzuteko prest eta zabal dagoen belarriari. Belarri-gingila ikutzerakoan baina, bozgorailutik datorren ahots zatarrak entzungaitz egiten ditu bere berbak.

–Entzun, adi guztiok! Sekulako kontzer-

tua entzuteko aukera paregabea daukazue gaur gauean belodromoan! –holantxe dino aukera honetarako bihurritutako ahots zakarrak bozgorailutik.

–Ez dago eskubiderik –inotsan Anderrek bere buruari, tristetiaz beteta esan be. Behin-lako maitearenganako hurrerapena trabaz betetzea nahikoa ez balitz bezala, musika doinu ederraz gozatzea be ezinezko egiten eban bozgorailuko ahotsak. Ixilduko balitz sikeran!

Entzun egin deutso antza ahots zatarrak, berehala ixildu da eta. Emaro-emaro dator orain bozgorailutik hasierako musika doinua. Musikaren ekinaren ekinez Anderren bihotza ez da horren blindatua, hori emoten dau behintzat, bihozberagoa eristen deutso bere barruari. Arin-arina sentitzen da eta, musikaren uhinetan endredatuta, aurrera doa. Saxoaren notek soineko barria jazten deutesie, bilbe finez eihotako ohialak hartzen ditu bere gorputz-arimak haren barruan.

Horrek guzti horrek aldatu eta bestelako-tu egiten eban belodromora eroian zeregina, egunkariko nagusiak agindutakoa bete beharrarena hain zuzen be: –Joan hadi belodromora gaur gauean eta idatzi egik patxadazko zeozer kontzertu erraldoi horretaz. Eta patxadazko zeozer dinoat, taldea nazio-artean entzutetsua dok eta. Hamaika eta erdietan dok hastekoa emonaldia, nahikoa izango dok ordurako joatea, aurretik joko jabenek ez jabek asko merezidu-eta, ez dituk inork ezagutzen eta.

Zergaitik ez ekiala hamaikak hurretxoan sartu zan belodromora. Musika doinua geroago eta ozenago etorkon belarri mintzeta. Ozenagoa izan arren be geroago eta atseginagoa eritxan. Entzuleak pozik egoza-


la emoten eban, pozik doinuaren arabera euren gorputzak xuabe-xuabe kulunkan eta dantzari. Berez berez hasi zan Ander bera be dantzari. Hirukotea egoan oholta ganean, bafflez inguratuta, argilunetan. Handik lasterrera baina, amaitutzat emon eban kontzertua hirukoteak, entzuleen eta dantzarien zoritxarrerako.

Kazetari sena berreskuratuz, holantxe zuzendu jakon Ander oholtzan behera izerditan blai etorren andreari:

–Eta zuek, nortzuk zarie ba zuek? –harritu aurpegiak.

–Gu telonerak gara –bere buruaz seguru dagoanaren aurpegiak–. Gugaz nahiko izan ez badozu, hamaika eta erdietan jatortzuz izarrak –norgehiagoka aurpegiak–. Sekulako alkarrizketa egin deikiezu egunkariko gehigarria izar-berbez bete-bete argitaratu daizuen. Gure doinuak osteria ezin izango dozuez presazko lerro artean argitaratu –etsi aurpegia jarriz eta alkarrizketa izan gurakolari amaiera emonez.

Eta kazetariak, kazetari gazte asko ikusitakoak, azken berbok belarrian zurrumbilorian, hurrengo egunerako kronika gazi-goza idazteari ekin eutsan.



Borthirigarai edo *Apez beltzaren* k(h)antorea

SARRERA

Jazoera odoltsuen lurraldea ere izan da Euskal Herria. Gure herri kanturik zaharrenek kantu odolgiroak dira. Diogunaren adibide argia da Bereterretxeren khantorea. Herraz edo gorrotoz, odol hotzean edo odol beroan, egindako heriotzek izan dute beren lekua gure kantutegian. Denbora joan ahala, kantuok desitxuratu diren heinean, kanta-gaia lanbrotu egin da. Kantuen datu eta ertz garbiak desegin egin dira. Uraren joanak errekarriak borobiltzen eta desegiten dituen bezala, denboraren joanak kantuak ulerkaitz bihurtzen ditu. Kantagaia edo gertaeren hari nagusia eten arren, kantuek ez dute beren xarma galtzen. Eder bezain ulerkaitz egiten dira gure begietarako. Eta ulerkaitz bezain misteriotsu.

Orain aztergai dugun “Apez beltzaren k(h)antore” honetan, apez beltz baten heriotza lehen pertsonan ematen da, batetik, eta hiltzailearen heriotza urkamendian iragartzen da, bestetik. Bien bitarteko zertzeladak, pertsonaiak eta abarrak ilunxko gelditzen dira. Kantu honen aldaera gehienak Baxenabarrekoak dira, Baxenabarre delako,

itxura guztien arabera, kantuaren gertalekua. Lehen testigantza inprimatua Francisque Michelen *Le Pays Basque* (Paris 1857) liburuan agertzen da. Kanta honen orain arteko aldaera guztiak zein bibliografia ikusi nahi dituenak jo beza Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak/ Romancero vasco* liburura¹. Gure lan honetako gunea edo ariera nagusia bi eredu iruzkintzea izango da. Lehen erdua Xahoren kantutegikoa da. Bigarrena Mañarian (Bizkaia) batua da, baina orain arte osorik argitara gabea. Azkuek bere kantutegian lehen ahapaldia besterik ez zuen argitaratu. Gainerako bostak haren eskuidatzietan zeutzan argitara gabe. Aurrea baino lehen, atera dezagun orain auzi bat sarrera honetara. Zer da gure “Apez beltzaren k(h)antorea” *tradiziozko balada* edo *balada arrunta*? Gaztelaniazko terminologiako *romance vulgar* delakoa *Euskal baladak* liburu bien egileek *balada arrunt* bataiatu zuten euskaraz. Eta bateo egoki zein desegoki horretako deitura edo terminologia darabilgu hemen, guk ere. Bi sail horietako zein dugu gurea? Guk, egia esan,

tradiziozko baladaren sailean hobeto ikusten dugu beste sailean baino. Horrek ez du esan nahi kontua zuria edo beltza nahitahiez izan behar duenik. Ez du esan nahi, era berean, tradiziozko baladaren ezagugarriak batez ere ukan arren, *balada arrunten* ezagugarriak ez dituenik. Baina zehaztasun hau ez da lantto honetara dakargun muin nagusia. Guk batez ere bi ereduren testua finkatu nahi dugu lan honetan, eta horretara zuzenduko dugu geure ahalegin nagusia².

Bi ereduak artikulu honetara ekarri badiugu, arrazoi argi bategatik da. Bi-biek badute beren artean kidetasun eta bateratasunik. Bateratasun hau hobeto ikusteko bi ereduak oinarri eta ardatz harturik matzaztuko ditugu geure iruzkinak. Lehen ereduak Agosti Xahoren kantutegian agertzen dela esan dugu gorago. Eredu hau –orain arte ezagutzen den oso eta ederrena, inolako dudarik gabe– Antonio Zavalak argitara eman zuen lehenengoz. Guk ale hori berriro dakargu argitara iruzkin batekin horniturik. Zergatik? Ulermen eta transkripzio batzuk gorabehera, horko hitz eta egitura zenbaiten mixterioa –esan dezagun bidenabar, mixterio handia eta ezin zulatuzkoa– apurren bat behintzat argitu nahi dugulako.

BALADAREN JATORRI, GERTALEKU ETA LEKU-IZENAK

Balada hau, *Bereterretxeren khantorea* edo *Urtsuako balada* eta beste balada historiko batzuk bezalaxe, leku zehatz bati lotua dago. Guk atal honetan saio txiki bat egingo dugu leku-izenen gainean.

Heriotzaren gertalekua desberdina da batean eta bestean. Heriotzagilea ihesean

doala ere aipatzen dira toponimo batzuk. Guk dakargun Agosti Xahoren aldaerako gertalekuak *Bidarrai* (I. ahapaldia) eta *Sagardoi hegi* (V. ahapaldia) dira. Bi leku-izen horietako bat, Bidarrai, ezaguna da bestea, ordea, ez. Bidarrai, denok dakigunez, Baxenabarreko mendebaldeko herrixka bat da, Lapurdirekin mugante.

Francisque Michelek 1857. urtean argitaratu zuen aldaeran (EE-II, 136-137 or.), Baxenabarreko leku-izen bi agertzen dira *Urkaraiako lepoa* eta *Ozta(ko) plaza*. Leku hauetako bat behintzat zigurtu dugu. Frantsesez *Hosta* dena, euskaraz *Ozta*, Baxenabarreko ekialdean dagoen herrixka bat da. Herri beraren izena, *Hortza*, apurren bat aldatu, ikusten dugu L. Dassanceren aldaeran (EE-IX, 144 or.).

1924 urteko *Gure Herria* aldizkariko gehigarri musikalean argitaratutako aldaeran (aurrerantzen GH 1924), *Harrixuriko gainean* hil zuela apez beltza dio (EE-III, 138 or.). Harrixuri delakoa, frantsesez *Harrichuri*, Zuberoako Arbaila oihanean, Baxenabarreko Mendibe herritik sarrera duen 1167 metroko mendia da. Gertalekua, beraz, balada honen arauera, Baxenabarreko ekialdea da.

Aldaera gehienak, beraz, Baxenabarrekoak diren arren, ulertzekoa da Xahorena zuberotarra izatea.

Mintza gaitezen orain hiltzaile eta laguntzaile direlakoez. Borthirigarai hiltzailea Or(t)zaizekoa da, aitari honelaxe esaten baitio: *–Ene aita zer berri da/ Or(t)zaizeko aldetik,/ Or(t)zaizeko aldetik eta/ gure etxe tristetik?* Ahapaldi honek, Xahoren aldaeran bakarrik agertzen den arren, badu beste ahapaldi bat argibide bera ematen duena: *Borthirigarai Orzaizeko,/ Borthiri Ezpeleta-*

Borthirigarai.

I.

Jour dane Joubane goizian
Bideraio Zubian,
Fintolet bat cargatu nian,
Ene colera gaitzian.

II.

Bai eta ere Descargatu
Ehun guizonen artian,
Ehun guizonen artian, eta
Apher, belzaren buruan.

III.

Jain Oubotaren saldia
Lai halzetan chouria,
Lai halzetan choaria, eta
Guizoun isouki-sabia.

IV.

Hare pasa orazi deroit
Zazpi brasaco lazia,
Zazpi brasaco lazia eta
Guiza betheroa koxia.



Aldibat nongocularic
Zagardoy higuin behora
Zazpi amor akhoui naitan
Dantzari ari xirelan.

VI.

Batle orri, botek Khina,
Jain nondila Dantzara
Dantza, dantza, ene mattea
di orai estut aigina.

VII.

Borthirigarai, orret adi
Errequezen ordiari
Errequezen ordiari eta
Jain Oubot bijazgiari.

VIII.

Jain Oubota arrastatu nec
Errequezen ordiari
Hiie behonae ataman benai
Imotzae eskera koxi.

IX.

Borthirigarai gaitia
Amoron uida lilia
Amara uida lilia eta
Aitaren beora mattea.

X.

Ene emarte Maria
Machila orrae turia
En urkhatua jitan delorie
Urkatua da ardia.

XI.

Ai etehen badi arrebatot
Chourin eta trendoric
Hobekiago kalizate
Labe gorrion sarthosio.

XII.

Ene aita zer berri da
Orkhatua alditic
Orkhatua alditic eta
Jure ethe tritetic.

XIII.

Ene Jemia berri charrac
Orkhatua alditic
Hiie urkhatua cordae
Rayonan denda berriic.

XIV.

Aita, kaxide ichilic
Et ottoi ogin nigarric
Rayonan etla urkhatua
Zura bote demorio.

XV.

Ene Jemia berriantio,
Dola derelat gachoa
Jeron ongan behardio
Ait' urkhatua berriic.

XVI.

Lepen, lehen errailiari
Idaki ezac bicia
Dizia idoe eta ez sopi,
Hagaric erraitia

XVII.

Borthirigarai Orkhatua
Borthirigarai Orkhatua
Hi Borthirigara, ni Rayonan
Zer bi guizonae gaituic!

ko,/ hi Bordelen, ni Bayonan,/ zer bi gizonak galdiko! Ahapaldi honen gainean esan dezagun hiltzailea bera Ortzaizekoa bada baxenabartarra dela. *Ossès* frantsesez, euskaraz *Or(t)zaize* da eta Baxenabarre erditsuan dago. Bere laguntzailea bide dena, Borthiri edo Bortairu edo dena delakoa, lapurtarra da, Ezpeletakoa.

BORTHIRIGARAI KHANTOREAREN TRANSKRIPZIOA

Aldizkari honetan argitara eman ditugun orain arteko lanetan bezalaxe, transkripzio zuzen bat eman ondoren geure grafiara ekarriko dugu kantua. A. Xahoren kantutegiko testua transkribatu zuenak aparteko arreta hartu zuen, inolako dudarik gabe. Letra txukuna bezain argia erabili zuen transkribatzaileak, esku artean zuen harribitxi prezia-tua bere edertasun betean eman nahiz³. Guk ere modu berean jokatu nahi dugu. Eman dezagun adibide bat: transkribatzaileak frantses erara ez ahoskatzeko jarri zituen -i- bokalearen gainean bi puntu: *Bidarraico, goizian* eta abar. Guk era horretakoak lehen transkripzioa ekarriko ditugu, eta ez bigarrena. Gure lehen transkripzioan jatorrizkoan dauden zehaztasun guztiak markatuko ditugu. Bigarren transkripzioan gaur egun gure ortografian irakurriko genukeen erara jarriko dugu. Lehen transkripzioan, beraz, testuan agertzen diren kontsonante aspiratu zein bokal arteko -h- guztiak errespetatu ditugu. Ez dago arrazoi honen zergatia azaldu beharrik. Ez dugu testua hankamoztu nahi, eta, horrexegatik beragatik, bere itxuririk ederrenean eman nahi dugu. Ohartze-koa da, era berean, biltze-data zaharrena

duen testu hau orain arteko aberatsena dela. Hiltzailea bera, esaterako, Borthirigarai dugu eta ez gainerako aldaeretan ikusten den Borthagarai eta abar. Esan dezagun, azkenik, gure kanta hau Xahoren kantutegiko 75garrena dela. Goazen, hortaz, ahapaldiz ahapaldi:

I

Joun dane Jouhane goizian
Bidarraico zubian,
Pistolet bat cargatu nian,
Ene colera gaitzian.

*Jundane Juhane goizian,/ Bidarraiko zübian,/ pistolet bat kargatü nian,/ ene kole-
ra gaitzian.*

Lehen ahapaldian zehaztasunik garrantzizkoenak ematen dira. “Noiz” lehen bertsoleerloan, “non” bigarrenean, “zer” hirugarrenean eta “nola” laugarrenean. Ez dago hobeki adierazterik *noiz-non-zer-nola* dire-lakoak. Ohargarria da urteko egun seinalea dela Donibane eguna. Egundorretan gertatu ohi dira baladetako ekintza asko. Adibide bat ematearren, “La enamorada del muerto” baladan ere, Diego Catalanek⁴ ematen dituen aldaera askotan, egun izentatu bera agertzen da. Badago, azkenik, posposizio polit bat lehen ahapaldi honetan: “ene kole-
ra gaitzian”. Neska soldadua baladan, A. Zavalaren IV. ereduan (531 or.), *Etxetik urten neban/ Mariatzeko illian,/ amasei urterekin,/ neure txoramenian*. Horrelako askotxo daudenez, bego honetan esapide hau. Badaude esapide honen aldaera interesgarriak. Hona, esaterako, GH 1924koan, A. Zavalaren III. ereduan (35 or.): *!...lesko-peta kargatu nuen/ neuretzat zorigaitzean*.

II

Bai eta ere descargatu
Ehun guizonen artian
Ehun guizonen artian, eta
Aphez belzaren burian.

Bai eta ere deskargatu/ ehun gizonen artian, / ehun gizonen artian eta/ aphez belzaren burian.

Lehen ahapaldian *kargatu* aditza ikusten dugu, oraingoan heriotzaren uneari dagokion *deskargatu*. Gainerako balada ereduetan ahapaldi berean ikusten ditugu aditz biak. Halaxe daude 1924 urteko GHko alean edo (EE-IV) eta Dassancerenean (EE-IX) eta guk dakargun Mañariko aldaeran. Hitzei dagokienez, *gizon* hitza dator garbiki. Hurrengo ahapaldian, ostera, *gizun* irakurtzen da zubererako eta are Baxanabarreko ekialdeko forma dena. Zentzuari dagokienez, heriotza ez da isilean eta gordean egiten, denen agerian baizik. Ahapaldi honetan ehun gizon dira testigu. Gainerako aldaera bitan (*Hozta plaza erdian* (EE-II) eta (*Hortza plazaren erdian* (EE-IX).

III

Jaun prebostaren saldia
Laü hatzetan chouria,
Laü hatzetan chouria, eta
Guizoun isouki-zalia.

Jaun prebostaren zaldia, / lau hatzetan xuria / lau hatzetan xuria eta / gizun isukizalia.

Jaun prebosta justizia-gizona dugu, gaizkin eta mandulerren jarraikitzaile nekagaitz

eta errimea, itxurak direnez. Prebostaren justizia-gosea edo gaiztotasuna bere zaldi polit bezain krudelaren zehaztasun batez emana dago: zaldiak gizonei horzka egiten omen die. Horzkalaria da gure “isukizalia”. Zuberoako euskaran *usukizale* edo uste genuke, *üsükizale* asimilazioz. Zaldi honen ezaugarri politez orain baino lehen aritua naiz. Jo bedi, nahi izatera, “Herri literatura-ko altxorrik handiena”, *Antonio Zavalaren ohoretan/Herri literaturaz gogoeta*, Deustuko Unibertsitatea, 2000, 130-135 or.

IV

Harec pasa erazi dereit
Zazpi brasako lezia,
Zazpi brasako lezia eta
Guiza betheco hessia.

Harek pasa erazi dereit / zazpi brasako lezia, / zazpi brasako lezia eta / giza betheco hessia.

Saltu edo jauzi handia eman bide du apez beltzaren hiltzaileak prebostaren zaldia atzean duela. *Brasa* delakoa neurri bat dugu frantsesez *brasse* eta erdaraz *brazo*. *Brasa* delakoa metro eta erditik gorakoa da. Zazpi brasako leizea hamar metro ingurukoa da. Leize hau saltatzeko zaldiak saltu handiak ematen ditu, nahitanahiez. Zaldi saltokari hau herri-literaturako beste kanta eta koplak batzuetan ere aipatzen da. Ikus bedi III. ahapaldian aipatutako neure lan bera. *Giza betheco hessia*, ordea, zer ote da? Neurri bat, hots, gizon baten tamainako hesi bat edo gizonez osatutako hesi bat? Bigarren modu honetara ulertzen du A. Zavalak “gaizkileak ihes egin ez dezan gizonez egindako hesi bat” honelaxe itzultzen baitu: “El me hizo

pasar una sima de siete brazas,/ una sima de siete brazas y una barrera de hombres”. Ohargarria da, dena dela, leizea aipatzen denean lurraren distantzia adierazten dela, hesiarekin, ordea, altuera.

Ohart dezadan azkenik, azken hiru bertso-lerro hauetan barne bihurki zoragarri bat agertzen dela.

V

Aldibat nengouelaric
Sagardoy heguin behera
Zazpi amore ikhousi nutian
Dantzari ari zirela.

Aldi bat nenguelarik/ Sagardoihegin behera,/ zazpi amore ikhusi nutian/ dantzari ari zirela.

Ahapaldi honek bestetara garamatza. Aurreko narrazio-hariarekin zerikusi handirik ez dukeen beste eskena batera. *Aldi bat nenguelarik* edo *Aldixe bat nenguelarik*, bestalde, narrazioa hasteko modu polit bat da, bestetan ere dokumentatzen dena. Ikus diogunaren lekuko batez ere “El marinero raptor” edo “Brodutzen ari nintzen” baladako aldaerak. Gure ulermenaren aizkorak, ordea, beste adabegi edo zailtasun batean egin du tope. Nola ulertu behar dugu *Sagardoy hegin behera* delakoa? Gure ustez *Sagardoyhegi* leku-izen bat izan behar du, Bereterretxeren khantoreko *Ezpeldoi* den bezala. Dударик ez dago zer den *Sagardoi* hitza. Hitz horren zehaztasuna izan behar du *Ezpeldoyhegi*, hegi hitza “ladera” edo horrelako zerbait ulertzen dugula. Zalantza, oster, batez ere egon aditzak adlatibo kasuarekin agertzeak handitzen digu. *Sagardoihegin egotea*, mugagabeen jokatu-

rik, ulergarri da. *Sagardoihegin behera egotea*, aldiz, zailtxoago egiten zaigu. Zavalak bestetara ulertu du *Sagardoi hegin behera* “Estando una vez debajo de un manzanal” itzuli baitu. A. Zavalak ulertu duen erak antzekotasun handia du Arabako Legutioko balada zoragarri batekin: “*Gure ortuban sagarra lorari/ Donianeko eldurik;/ aren azpian uso bi dantzari/ ederrik eta galantik*”. (Ikus EE, 411-2 or.). A. Zavalaren itzulpen honek, ordea, zailtasun edo arakaitz bat badu. Zergatik agertzen da *Sagardoihegin* mugagabeen? Eta bestela ere *Sagardoihegin behera* “debajo de un manzanal” itzultzea ez ote da zentzua apurren bat bortxatzea?

VI

Batec erri, bestec kheñu,
Joan nendila dantzara
Dantza, dantza ene maitiak
Nic orai eztut aizina.

Batec erri, bestec kheñu/ joan nendila dantzara./ Dantza, dantza, ene maitiak,/ nik orai eztut aizina.

Ihesean, heriosuarrean doala egindako dantzarako deia ote da bi ahapaldi hauetan aditzera ematen dena? Baladaren aldaera honetan hiltzaileak duen amore edo amorantez hitz egiten da. Gure Bizkaiko aldaeran hildakoaren arreba begi-nabarrak izango ditu amorante asko.

Hizkuntzari dagokionez, zalantzatxo bat edo beste badugu. Nola da *Batec* edo *Batac*? Eta bestetik, *kheñu* edo *khiñu*?

VII

Borthirigarai, arrest'adi
 Erregeren ordriari
 Erregeren ordriari eta
 Jaon Prebost bizargorriari.

Borthirigarai, arrest adi/ Erregeren ordriari,/ Erregeren ordriari eta/ Jaun Prebost bizargorriari.

Prebostak Borthirigarai ihesleari egindako manu edo agindu zorrotza. Ohargarria da postposizio polita *-ren ordreari*, hots, (genitibo) *ordre-*(datibo)⁵. Ohargarria da, era berean, Jaun Prebost bizargorria bera ere Erregeren *ordre* edo *aginduaren* kategoria bera duela.

VIII

Jaun Prebosta arrestatzen nuc
 Erregeren ordriari
 Hire behorrac atzaman benai
 Emotzac eskerra[c] horri.

Jaun Prebosta arrestatzen nuk/ Erregeren ordriari,/ hire behorrak atzaman benaie emotzak eskerra[k] horri.

Hitzei dagokienez, hirugarren ahapaldian *Jaun prebostaren zaldia* agertzen da, hots, animalia edo patari arra. Gure oraingo ahapaldi honetan, oster, Jaun prebostaren animalia *behorra* da, hots, emea. Adizkiei dagokienez *nuc* eta *benai* eta *emotzak* ikusten ditugu. *Benai* forma *bait-* eta *nau* bate-tik dator. *Bait-* delakoa *bei-* eta uztarduran *be(t)-* bihurturik.

IX

Borthirigarai gaztia
 Amaren uda lilia
 Amaren uda lilia eta
 Aitaren seme maitia.

Borthirigarai gaztia,/ amaren üda lilia,/ amaren üda lilia eta/ aitaren seme maitia.

Ahapaldi honetan inongo hiztegitan agertzen ez den hitz konposatu polit bat ikusten dugu: *uda lilia*. *Uda lilia* berez ez dirudi besterik denik udako lore edo lilia baino. Udako lorea edo udaloreak, gaztelaniaz “primula” delakoak, lore eder eta zoragarrietakoa adierazten du. Uda lilia delakoak Zuberoako herri literatura kutsuko testuetan behin baino gehiagotan ikusten dugu. Pierre Topet Etxahunen “Filipiñekuak” konposizioan, esaterako,: *3-Üda lili ejerra, oi xarmagarria!/ Tallaz perfeita eta bilho hollia!/ Orai jiten nitzaitzü adio erraitera:/ Itxasoz banuazü fortuna egitera*. Khantore bereko beste ahapaldi batean ere badator, hona hemen: *5-Üda lili ejerra ez egin nigarririk,/ Bardin ez ahal düzü orai profetüririk; Ene lagünak dira bortitan sarthüririk/ Eta ni ezin pharti, maitia, züganik*. Kontuak honetara, zer da *üda lilia*? J. Haritschelharrek honelaxe dio bere azalpenetan: “*üda lili*: simbole de la beauté; mot composé”⁶. Ohartzekoa da amodio kantu honetako bi ahapaldietan modu polit finko batean agertzen dela: *üda lili ejerra*. Lili hitzaren erabilera uste baino konplexuagoa da Zuberoako herri literaturan. Guk atal honetara adibide batzuk baino ez ditugu ekarriko. Pierre Topet Etxahunen “Arengaraiko primaren khantoria” maitasun olerki zoragarrian ere,

esaterako, agertzen da *lili* hitza uda determinatzailea gabe. Hona hemen 15. ahapaldia: *Arañeko süjeta, ororen lilia, / Neskatila gaztetan parerik gabia, / Hanitx plazer hartü düzü (düzün) haitatü lekhia / Barkoxen igaiteko zure zahartzia*. “Ororen lilia” delakoak “loreetan lore” edo horrelako zerbait adierazten bide du. Eman ditzagun adibide gehiago. “Mendiko herrian” konposizioan, esaterako, holaxe hasten da: *Mendiko herrian Jauregiberria / Han düzü laborari alhaba lilia, / ./. Zer da, hortaz, alhaba lilia?* Honela iruzkintzen du J. Haritchelharrek “lilia” hitza: “apposition à *alhaba*; suggère la perfection tant morale que physique; cf. *Sohütako ezteietan*, strophe 2. Souvent employé dans les éphithalames”⁷. Aipatu epitalamioan *alhaba lilia* ez ezik *esposa lilia* ere agertzen da. Beraz Etchahunen adibideetan emakumeei dagokien edertasun fisiko eta morala adierazko hitz aberatsa da *lilia*. Hitz goresgarria, beraz, gorenetan gorena adieraztekoa. Gorenetan gorena “hauta” edo “hautazkoa”, bestela esanda. Iturri zaharragoetako zehaztasun bat ere aurkitu dugu. Agosti Xaho aterraztarrak honelaxe dio *Biarritz entre Les Pyrénées et l’océan. Itinéraire pittoresque* liburuaren bigarren alean (Deuxième Partie, Bayonne, II, 188-189 or.) lanean:

“La femme, dans la poésie des bardes, est une fleur. ‘J’ai vu une fleur dans un jardin; je voudrais l’voir à mon côté’. Cette fleur est tour à tour une violette, une rose, un lis, un jasmin; toutes les richesses de la floriculture suffiraient à peine à représenter les fleurs de beauté que le Basque possède dans ses montagnes, les plus riantes de toute l’Europe. La fleur des montagnes, à l’heure où sonne l’âge

de la nubilité, cesse d’être une fleur de printemps et devient une fleur d’été *uda lilia*.”

Agosti Xahok zehaztasun garrantzizko bat ematen digu. Geure hitzez esateko: “udaberrik udara joaten garen moduan, udaberri-liliak ere *uda-lili* bihurtzen direla”. Emakumeak ere neskatila izatetik, ezkongaraira datozenean, “*uda-lili*” bihurtzen dira herri maitasun-kantuetan. Antzeko irudia ikusten dugu, esaterako, “Atharratze jauregian” baladan, *bi zitroñ loratü* eskatzen dizkio Hongariako erregeak eta erantzuna da ez direla *huntü*, ez direla heldu.

Gure balada honetako *uda lilia* ezkongarriari edo ezkontadin edo garai jakin bati badagokio ere, ez da neskatila bati dagokiona. Bestela esan, aurkitu ditugun adibide guztiak neska edo emakumeei dagozkienak izan arren, gure ahapaldi honetan mutilari dagokio. Guk geure hizkeran nekez antzean dezakegun hitz goresgarria izan behar du, inolaz ere. Hitzak berak indar apartekoa badu zer esan ahapaldiaz? *Amaren uda lilia eta aitaren seme maitia* esaten badu? Seme ederretan ederrena eta maiteetan maiteena, eta, azkenik, mutil izatetik gizon gazte izatera, ezkontadinera etorri dela, esan nahi ote du?

X

Ene emazte Maria
Machela orrace luzia
En’ikhoustera jiten delaric
Uztaritzen da erdia.

Ene emazte Maria, / maxela orraze luzia, / en’ikhustera jiten delarik / Uztaritzen da erdia.

Ahapaldi harrigarria, benetan. Zer da “maxela orraze luzia”? *Maxela/ mazela* gure sartaldeko *masaila* da. Gorputzaren lohadar edo zatiei orraze hitzarekin konposaturik agertzen da zenbaitetan. *Oin-orraze* hitzak, esaterako, “empeine” adierazten du. *Maxela orraze luzia* zer ote da? Hona horren argibideak. *Begitartearen orrazea*, “gable coupe de la figure” dio Duvoisinek, “corte (de la cara)”. *Azkuak Begitarte orraze-luzea* (BN, S) *bisai orraze-luzea* (L), “cara de corte largo” eta Lhandek “profil”. Gure *maxela orraze luzeak* “masaila irtena eta luzea” adierazten du. Aurpegiaren zehaztasun hori pertsonaren izaeraren berri emateko izango da. *Pars pro toto* edo zehaztasun batekintxe gorputzaren ezaugarri nabariena ez ezik, izaeraren berri ere eman nahi dela dirudi. Ondo baino hobeto dago beraz itzulia A. Zavalaren itzulpenean: *mi esposa María, de mejilla larga*. Badirudi Borthirigarai kartzelan dagoela emaztea erditzen denean. Borthirigaraik, era horretara, ezin izango du bere semea ikusi.

Dassanceren aldaeran bi mutikoz erdi da emaztea. Bi ahapalditan ematen da erditze hau: *–Uztaritze herria,/ ehiz izaitez berria;/ hitarik jali zautak/ ene bi semen sortzia*. Hona hemen bigarrena: *–Ene andria Maria,/ ezkoa bezain horia./ Uztaritzen omen zaude/ bi mutikottoz erdia*. Bi mutikotto hauetarik bat izango omen da aitaren eresia kantatuko duena. Kantu horren berri agertzen da F. Michelen azken ahapaldi honetan: *Urtheac sembat egun tu?! Hemezortzitan hoghoi baditu./ Borthagaray gazte horrec/ Hauc ditu conponditu*.

XI

Nic etchen badit arreba bat
Chouriric eta trenderic
Hobekiago balizate
Labe gorrian sarthuric.

Nik etxen badit arreba bat/ xuririk eta trenderik,/ hobekiago balizate/ labe gorrian sarthüirik.

Borthirigaraik emaztearen berri eman ondoren arrebarena ematen bide du. Itxura amoltsuaren azpian, itxurak direnez, bihotz gogorra omen du Borthirigarairan arrebak. Ahapaldi honen tankerakorik ez da beste aldaeretan agertzen. Hizkuntzari gagozkioenez, *etxen* inesibo mugagabe arkaikoa da. Hiztunaren etxeari dagokio *etxen* eta *gure etxean* adierazi nahi du.

XII

Ene aita zer berri da
Ortzaizeco aldetic
Orzaizeco aldetic eta
Goure etche tristetic.

–Ene aita zer berri da/ Ortzaizeko aldetik,/ Ortzaizeko aldetik eta/ gure etxe tristetik?

Ahapaldi hau eta hurrengo biek behintzat kartzelako berri ematen dute. Ahapaldi hauetan aita da, itxurak direnez, seme hiltzailea kartzelan bisitatzen duena. Kartzelan dagoen hiltzailea norbaitek bisitatzen du. Zein da bisitatzailerik hiltzailearen aita edo semea? Eredu batzuetan era batera ematen du eta bestetan beste erara. Garbiago ikusten da (EE-V ereduan, 141 or.): *Aita*

yin zaundan gaztelurat/ boneta diruz bete-rik:/ –To, seme, nik etzikeiat/ dirutan hire bizirik.

XIII

Ene semia berri charrac
Orzaizeco aldetic
Hire urkhatzeco cordac
Bayonan direla berriric.

–Ene semia, berri xarrak/ Orzaizeko aldetik/ hire ürkhatzeko kordak/ Baionan direla berririk.

Elkar hizketa indartsu honetan seme kartzelaratuak galdetzen dionean zer notizia dagoen *berri* hitza erabiltzen du. Aitaren erantzuna Baionan urkatzeko sokak *berririk* daudela dionean, *berri* hitza egitura adberbialean darabil. *Gure Herria*-ko 1924ko aldaeran ez dago hain garbi kartzelako eskena. Gure aldaera honetan aitak laster urkatuko dutela diotso semeari, eta urkatu, itxurak direnez, Baionan, jende guztiaren agerian.

XIV

Aita, zaüde ichilic
Ez othoi eghin nigarric
Bayonan ezta urkhatuco
Zure beste semeric.

–Aita, zaude ixilik/ ez othoi egin nigarrik/ Baionan ezta ürkhatic/ zure beste semeric.

Ahapaldi hau ez da erraza noren artekoa den zehazten. Aldaera batzuetan, gorago ikusi dugunez, aita da seme hiltzailea kartzelan bisitatzen duena. Baina hiltzaile kar-

tzelatua bera semeei zuzentzen zaienez gero, semeak ere bisitatzen du aita kartzelatua? Balada honek dituen ilununeetako bat hori da, dudarik gabe.

Aita-semeen arteko ahapaldi samin honetan lehen bi bertso-lerroak ezagunak ditugu. Marisantz eta Buztanobi gaztearen arteko autua honelaxe dakar Sallaberrik: *X-Arreba, ago ixilik/ ez othoi egin nigarrik/ .../.*

XV

Ene semia Erremuntto,
Dolu dereiat gachoa
Zeren entzun behardia[c]
Ait' urkhatiaren semia.

–Ene semia Erremuntto,/ dolu dereiat, gaxoa,/ zeren entzun behar dia[k]/ Ait' urkhatiaren semia.

Urkagai den preso edo kondenatuak bere semeari zuzentzen dizkion hitzak dirudite. 1924ko GHko alean antzera dator baina gehigarri bat duela: *–Ene seme Erramuntto,/ Erramu goizean sortia,/ Damurik aditu behar duk: “Ait' urkhatiaren semia!”/ Ait' urkhatiaren semia bainan,/ ez ait' ohoinaren semia!* Ahapaldi hau dela eta hona zer dioten Nehor eta C. Dufau iruzkingileek⁸: “A quand remonte-t-elle? Quel crime passionnel célèbre-t-elle? Quel est ce Prêtre noir? Quelle, cette soeur religieuse qui, probablement a dénoncé le meurtrier? Et ce meurtrier, possesseur de cent vaches et de leur taureau, est-ce-comme il est probable-Borthegarai d'Ossès, ou Borthairu d'Espelette? Ils sont complices tous les deux, car, tous les deux ils vont mourir. Et cet Erramon, né

au matin des Rameaux, n'est-il pas le même que le jeune Borthagarai, l'auteur même de la plainte douloureuse?"

Seme hau ez omen du aitak ikusten, emazteak Uztaritzen argira eman baitu. Hemen eta hurrengo ahapaldian badirudi aita seme honi zuzentzen zaiola. Nola? Zuzenean edo bakar hizketa bat egiten duela? Francisque Michelen aldaeran, aitak semea ez duela ikusten dio: *–Ene seme Erramou[n]tto,/ aita ikhousi gabia,/ Aita ikhousi gabia eta/ aita urkhatu semia,/ Hargatic eztuk adituco/ Aita ohoinaren semia.*

XVI

Lehen, lehen erraïliari
Ideki ezoc bicia
Bizia idoc eta ez sofri
Holacoric erraitia.

Lehen, lehen erraïliari/ ideki ezok bizia/ bizia idok eta ez sofri/ holakorik erraitia.

Laster urkatuko duten Borthirigarai ez du nahi bere semeak aditu dezan aitaren gauza txarrik. Bizia lehenago kentzeko gaizki esakak entzutea baino agintzen dio semeari. Ez ote du, era berean, berak ere hil apez beltza gaizki esateagatik. Ez ote du apez beltza hil ohoina dela entzuteagatik? 1924ko aldaeran horrelako zerbait aditzera ematen da V. ahapaldian.

XVII

Borthiri garaï Orzaizeco
Borthiri Ezpeletaco
Hi Bordelen, ni Bayonan
Zer bi guizonac galduco!

Borthirigarai Orzaizeco,/ Borthiri Ezpeletaco,/ hi Bordelen, ni Baionan,/ zer bi guizonac galdüko!

Ahapaldi hau garrantzi handikoa izan da, ezagutzen ditugun IX aldaeretatik lautan agertzen baita. Ahapaldi hau Xahoren bildumako azkena da eta Francisque Michelen liburuko lehena. Ez dakigu ezer Ezpeletakoa zen *Borthiri* horren gainean. Borthirigarai hiltzailearen laguntzailea zen? Ditugun lau aldaeretako batean, F. Michelenean, izen bera ematen da, baina gainerako guztietan desberdina. Borthirigarai eta Borthiri bi biak urkatuak edo justiziatuak izan ziren. Horretara dator *galdu* aditza.

Hizkuntzari dagokionez, *guizonac* ikusten da garbiki, bigarren ahapaldian ere bi alditan *guizonen*, hirugarren ahapaldian ordea, *guizoun* hots "gizun". Hiri-izenetan duda bat egin dugu. Zer da Bordele edo Bordale? Zalantzaren aurrean lehenaren alde jarri gara.

APEZ BELTZA BALADAREN BIZKAIKO ALDAERA ARGITARATUAK

Ataltxo honetan Bizkaiko aldaera argitaratuak emango ditugu. Modu horretara hobeki ulertuko dugu hurrengo atala: aldaera ez argitaratuarena. Has gaitezen, beraz, Azkueren *Cancionero Popular Vasco*, 424 zenbakiko alean, 530. orrialdean datorrenarekin. Bizkaiko Mañariako Eladia Zabala andreari bilduriko lehen ahapaldia hau da:

Negu goizalde batean,
albakoaren otsean,
eskopetea kargadu neban

arri otzaren gainean,
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

Kanta hasiera baino ez da hor agertzen dena. Lehen ahapaldi honetan badira beste balada batzuetan agertzen diren segmentu edo pasarte txiki batzuk. *Arri otzaren gainean*, esaterako, Ana Juanixeren baladan agertzen da. Ana Juanixeren balada aipatuz gero, gure lantto honetako baladagaiari dagokion zehaztasun bat kontu handikoa da. Dimako Ana Juanixeren balada aldaera batean, Eduarda Bilbao andreari jasotakoan, “Aphez beltza”ren zenbait ahapaldi agertzen dira kontaminazioz. Hona hemen:

1

Bordegaraien semiak
ai ze fortuna bagiak,
urkamendiko oñian dago
hango laugarren semia.

2

Bordegaraien zaldie
lau anketan zurie,
zazpi pausotan pasatuten deu
zortzi arkuko zubie.

3

Bordegaraireren alabak
ai ze andra fortunusak,
hamabi urte dituzaneko
garrian hiru kopetak.

Hona aldatu ditugun hiru ahapaldi hauek gure ahapaldi bereizketari dagokio. *Euskal Baladak. Antologia eta azterketa* iturrian zein A. Zavalaren *Romancero Vasco /Euskal*

Erromantzeak lanean batera agertzen dira⁹. Labayruko arkibura jo eta hango beste *performance* edo “kantaldi” bat behin eta berriro entzuteko aukera izan dut. (1982ko abenduan, Karmen Bernaolak egina, Eduarda Bilbao 75 urte zituela.) Hona entzuten dudana:

1

Bordegaraien semiak
a se fortuna bagiak!
urkamendiko oñian dago
ango laugarren semia.

2

Bordegaraien alabak
ai se andra fortunusak!
amabi urte dituesaneko
garrirañoko kopetak.

3

Bordegaraien zaldie
lau kadaretan surie,
saspi pasotan pasatuten dau
sortzi arkuko subie.

Bizkaiko gaur eguneko euskaran, eta aspalditxodanik honakoan, *s/z* ahoskeran desberdintzen ez direnez, ahoskatu bezala transkribatu dut. Bi *performance* hauetan ez da ahapaldien ordena zaintzen. Dauden bi aldaeratxo nabarmenenak *garrirañoko kopetak* da 1982ko aldaeran eta 1981lekoa *garrian hiru kopetak*. Era berean *lau kadaretan surie* 1982ko aldaeran eta 1981lekoan *lau anketan zurie*. Hiru ahapaldi hauek ezer adierazi nahi dute? *Garrirañoko kopetak*, esaterako, zentzu gehiago du *garrian hiru kopetak* baino. Dannaeren mitoarekin zeri-kusia ote du?

BIZKAIKO MAÑARIAKO ALDAERA ZAHAR-BERRIA

Azkuek bere *Cancionero Popular Vasco* lanean, 424. zenbakian, 530. orrialdean, Bizkaian Mañariako Eladia Zabala andeari jasotako kantaren lehen ahapaldia dakar, baina ez da berak bildu zuen kanta osoa. Bere liburuan argitaratzen duen hari-muturra kantaren lehen ahapaldia baino ez da. Hari-mutur horretarik tiratu eta mataza osoa agertuko dugu hemen. Behin Azkueren paperetara jo dugunean, lehen ahapaldia ez ezik, beste bost argitaragabe berri ere aurkitu ditugu. Kanta transkribatu baino lehen “Endecha” hitza irakurtzen dugu. Endecha hau euskaraz *eresia* dugu, edo A. Zavalari bakarrik irakurri diogun bezala *hil-eresia*¹⁰. Gure lantto honetan ahapaldi guztiak jarri eta iruzkinduko ditugu. Hona hemen lehena.

1

Oiñean ere goizean
albakoaren otsean
eskopeta kargadu neban
arri otzaren ganean
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

Lehen ahapaldi hau desberdin dator esku-idatzi iturrian eta *Cancionero*-an. Zein da desberdintasun nagusia? Lehen bertso-lerroa. Gainerako bertso-lerroak ondo transkribaturik daude. Lehen bertso-lerroa ez da inondik inora ere *Negu goizalde batean* beste zerbait den *Oiñean ere goizean* baino. *Oiñean ere goizean* ez da besterik, gure ustean, *Donianean goizean* baino. Hau da san Juan goizean. Uda hasten den egun seinalea, san Juan eguna, Azkuek “negu” bihurtzen du, itxurazko arrazoirik gabe. Zergatik hori? Berriemaileak *Oiñean* kantatu ziolako eta Azkuek ulertu ez zuelako. Nola ulertu desitxuratua badago hitza? Bidaia-kuaderno horretatik bestetara aldatu zuenean “*Oiñean (sic)*” markatu zuen. *Oiñean* delakoa zergatik da *Donianean*? Hala izateko badira froga bat baino gehiago. Lehen bertso-lerro horretan *ere* hitza agertzen da eta ez Bizkaiko erara, geroago agertzen den “be(re)”. Modu horretara, bateratasun bete-betekoa izango luke Xahoren kantutegikoarekin, bai eguna markatzeko orduan bai eguneko aldian berean ere: goizean. Ohargarria da neguko eta udako solstizioak markatzen dituzten egunak (san Juan eta santa Luzia egunak) baladetan sarri

The image shows a handwritten musical score for the song "Endecha". It features a single staff with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The melody is written in a simple, folk-like style. Below the staff, there are two lines of lyrics. The first line is in Basque: "Oiñean ere goizean albakoaren otsean eskopeta kargadu neban arri otzaren ganean bai eta gero deskargau bere apaiz jaun orren aldean." The second line is in Spanish: "ganean bai eta gero deskargau bere apaiz jaun orren aldean". There are also some handwritten notes and corrections in Spanish, such as "El original es a F. de Oñe" and "El original es a F. de Oñe". The word "Endecha" is written above the staff.

agertzen direla. Euskal eremu urritxoan Ana Juanixeren Ondarruko aldaeran santa Luzia gaua ikusten dugu. *Doniane* hitza agertu beharrean *Doñean ere* hori zergatik aldatu zuen? *Doniane*, esaterako, Legutioko bala-da polit batean ikusten dugu: *Gure ortuban sagarra loran/ Donianeko eldurik/.../*

Bateratasunak *kargadu/ deskargau* aditzetan ez ezik, aditz horiek txertatzeko egitura berezietan ere badaude. *Albakoaren otsean* horrek “albako kanpaiaren hotsean” esan nahi du, goizean goiz, beraz. *Albakoa* Bizkaiko euskaran albako kanpaia da, argi-ezki-la, eguna argitzearekin batera jotzen zen eta.

2

Apaiz jaun orren arreba
neskato begi nabarra,
ni urkatuten nazala entzunda
kontentu artzen al dona?
euk bere bada laster izango'n
neuk daroadan zigorra.

Ahapaldi honetako euskarari dagokionez, harrigarri egiten da batean *dona* eta bestean *don* ikustea emakumeen nokan. Azkuek dakarren *izango'n* hori ez da besterik “izango don” baten laburdura baino. Ahapaldi honen baliokideak dira *Pays Basque* liburuko laugarrena: *Apez belcharen arreba,/ Ala nescacha adreta/ Ni galerazico, bainan/ Etzaun pizturen anaia*. Antzekoa da, era berean, 1924ko GHko 3. ahapaldia: *-Apez beltxaren arreba/ serora begiñabarra,/ ni galeraziren nun, bainan/ ez zain pizturen anaia,/ ni galeraziren nun, bainan/ ez zain pizturen anaia*.

Gure ahapaldiko euskarari ohartuz, *begi nabarra* irakurtzen dut eta *ez begi ñabarra*.

Hizkuntzaren aldetik ohikoagoa genuke Mañarian *abade jaun* ikustea eta *ez apaiz jaun*.

3

Ogei ditut urterik
ogeta bost andrarik,
aren guztien artean bere,
ez Maripepa langorik.

Harrigarria da ahapaldi hau. Ez dugu honen antzekorik beste inon aurkitu. Antzekoenak Xahoren V-VI ahapaldiak dira. Xahorenean, zazpi amorek gelditzeko eskatzen diote Borthirigarai hitzaileari. *Ogei ditut urterik, batetik, eta ogeitabost andrarik* egitura ez ote da bitxia? Antzeko zerbait ikusi dut Arrateko baladetan (EE-XVIII, 738 or.) *Zeruan asko dagoz/ olibo adarrik,/ olibo adarrik eta/ lirio lorarik*.

Pertsona-izenei dagokionez, *Mari Pepa* ikusten dugu. Dantza-kopletan behin baino gehiagotan agertzen da emakume izen bitxi hau. Eman ditzagun bi adibide, lehena Azkuek *Euskalerrriaren Yakintza* lanean, 58 or., dakarrena: *Mandiolan ei dagoz/ iru neskatila;/ asko egoten dira/ eurari begira. Bata da Mari Pepa/ bestea Karlota, irugarrena bere/ txairo txairoa da*. Bigarrena Zeanuriko kopladikoa: *Ortuen perejilla/ saleruen gatzal/ ekarri Mari Pepa/ yan dogun lebatza*¹¹.

Trankripzioari gagozkiola ez du zailtasun handirik. *Andrarik* hitza baino lehenago zerbait idatzi du eta “andrarik” hitzaren bukaera -rarik gainean.

4

Gorantzi bada gorantzi;
gorantzi Mari Pepari,
ak emoniko pañuelua,
borreru batek deust begi.

Laugarren ahapaldi honetan badira hizkuntza kontu harrigarriak. Hegoaldean, Bizkaialdean, gorantziak emon, bialdu... esaten da, betiere pluralean, nik dakidala. Erdiko euskalkietan, Gipuzkoan, eskum(u)ñiak. Bestaldekoetan, ostera, mugagabea *goraintzi*. Adibideak zenbatgura eman litezke. Interesa duenak jo beza *Orotariko Euskal Hiztegi* ederrera. Gure ahapaldi honetan “Gorantzi bada gorantzi” harrigarriaren gainean, are harrigarriago egiten den “gorantzi Mari Pepari” esapidea dator. Ez dut uste Hegoaldeko testu bakar batean ere mugagabea dokumentatzen denik. Bigarren ezustea *deust begi* esapidea da. Ez dut uste beste inon aurki daitekeenik.

5

Borderagaiko etxea,
etxe portuna gabea,
urkamendiko soketan dago
ango boskarren semea.

Ahapaldi zirrargarria da oraingoa. Ahapaldi honek Ana Juanixe baladan txertatua dagoen lehen ahapaldiarekin antzekotasun handia du. Honela dio *Bordegaraien semiak/ ai ze fortuna gabiak/ urkamendiko oñian dago/ ango laugarren semia*. Bateratasuna eta aldaerak begi-bistakoak direnez gero, ez ditut iruzkinduko. Ohargarria da esapideei dagokienez, “soketan egon” egitura.

6

Bordegarayen zaldia
lau anketan da zuria,
iru saltuan pasauko leuke
zazpi estatuko zubia.

Ahapaldi honen oso antzekoa, berdina huskeriaren bat gorabehera, ikusten dugu Ana Juanixe baladan kontaminazioz agertzen diren hiru ahapaldietako batean: *Bordegarayen saldie/ lau kadaretan surie./ saspi pasotan pasatuten dau/ sortzi arkuko subie*. Aurkitu ditugun ahapaldi honen aldaera guztiak gorago aipatu artikuluan eman ditugu. Bitxi bezain harrigarri egiten zaigu muturretako bi euskalkitako eredueta bakarrik, Bizkaikoan eta Zuberoakoan, aurkitzea ahapaldi hau. Xahoren III. ahapaldia eta gure Mañariko VI. ahapaldia bat datoz funtsean.

BALADA HONEN OIHARTZUNAK BESTE BALADA ETA KANTUETAN

Badira, denok dakigunez, balada batean eta bestean ikusten ditugun bizpahiru ahapaldi ezagun. Bereterretxeren kantoreko *Haltzak ez du bihotzik/.../ exordio famatua* eta */.../ ehun behi bazereitzola/ bere zezena ondotik* gure baladaren bi aldaeratan ikusten ditugu. Aldaera bat 1857. urteko Francisque Michelen liburuan agertzen da eta bestea guri dagokigun ereduko 1924ko GH koan. Atarratze jauregiko *Ama saldu naizu/ miga bat bezala/...* Bizkaiko “Frantziako Anderea”n ere ikusten ditugu. Gai hau zehatz azterturik artikulua polit bat egin daiteke, inolako zalantzarik gabe. Esku artean daukagun eredu honetan kontaminazioak edo bateratasunak bat baino gehiago ditugu. A.

Zavalak dakartzan bederlatzi eredueta hirutan ahapaldi bat erabat interesgarria da. Ahapaldi hori IV, V, IX eredueta ikusten dugu. Hona hemen IX eredu bezalaxe:

Urteak zenbat egun tu?
Hemezortzitan hogoi tu.
Bortagarai jaun gazte horrek
hainbertze bertsu eman du.

Zer adierazi nahi du honek? Urtearen egun kopurua ematen da hogeinako euskal zenbaki sistema zaharrean. Urteak ditu hemezortzitan hogoi egun, hots, 360 egun. Egundakoz bertso bat kantatu badu Bortagarai gazteak hirurehun eta hirurogei bertso kantatu ditu. Hau da kantari datxekion leienda polita. Norbaitek bere nahigabea eta pasadizoa ehunka ahapalditan ematea. Elezahar hau lotua dago gehienetan kartzelatuak dauden preso pasadizoei. Leienda hau Berdabioren kantan ere agertzen da. Horren gainean bildu genituen datu eta bibliografia guztia “Herri literaturako altxorrik handiena” *Antonio Zavalaren oheretan/Herri literaturaz gogoeta* (Deustuko Unibertsitatea, 2000, 127-131 or.) lanean eman genuen. Gure balada honetan ere ematen da. Kasu honetan, ordea, hiltzailearen semeak, Erramuntok, kantatzen bide ditu aitaren gertaera guztiak. *Kanta Berizengoitiaz* sinatzen duen egile ezezagun batek “La complainte de Borthagaray” (*Gure Herria*, 1925, Urtharrila-Janvier, 49-52 or.) honelaxe dio:

“*Hainbertze* confirme d’ailleurs la tradition qui veut que cette complainte compte autant de couplets que de jours dans l’année; Francisque Michel le supposait et avait du l’entendre dire. Un vieillard, que nous

interrogeons à ce sujet et qui, cela va sans dire, n’a jamais entendu parler du savant folkloriste, nous dit avoir ouï dans sa jeunesse des couplets extrêmement nombreux de cette complainte et nous confirma spontanément l’hypothèse de Fr. Michel, ajoutant même le détail suivant: “Borthagaray mourut juste après qu’il eut fini de chanter ce dernier couplet”.

Ahapaldi honetako beronetako lehen bi bertso-lerroak ikusten ditugu Azkuek Saraitzuko Ezkorazen bildu zuen balada baten haseran (EE, 160-162): *Urteak zenbat egun tu?/ Sorak kainbat zinta tu:/ erdiak ditu Probidoreanak,/ beste erdiak Urttik emanak*¹².

Bizkaiko hiru ahapaldiak, era berean, eta gorago ikusi dugunez, Ana Juanixeren Arratiako eredu batean txertaturik ikusten ditugu. Hiru ahapaldi hauek antzekotasun betebetekoa dute Mañariko gure ereduarekin, ikusi dugunez. Mañariko ereduko lehen ahapaldian, ordea, segmento txiki bat “arri otzaren gainean” Ana Juanixe baladatik eza gutzen dugu...

AZKEN ONDORIO GISA

Jatorriz Baxenabarrekoa den balada (arrunt) baten Zuberoako eta Bizkaiko aldaerak ikusi nahi izan ditugu lantto honetan. Bizkai-Zuberoak Euskal Herriko bi muturrak dira, sartalde-sortaldeak, begi-bistakoa denez. Euskal Baladak euskararen eremu guztian izan duen oihartzunaren lekuko argi dira orain arte “Ana Juanixe” baladan agertzen ziren hiru ahapaldiez gain, gure lan honetako bi aldaera nagusiak.

Pertsonaia nagusiaren izenak ere ez du aldaketa nabarmenagirik egin, *Borthirigarai*

ikusten dugu Xahoren aldaeran, *Borthagarai* Francisque Michelenean, *Borthegarai* 1924ko GH-koan. Bizkaian, ordea, *Bordegarai* Mañariko eta Arratiako aldaeretan. Gure lantto honetan Euskal Herriko bi mutur edo bazterreko aldaera bi finkatu eta iruzkintzera mugatu gara. Hona Jesús Antonio Cidek bere “Romancero hispánico y balada vasca” lanean (*Antonio Zavalaren ohoretan. Herri literaturaz gogoeta*, Deustuko Unibertsitatea, 2000) esandako hitzak gure lana giltzatu eta laburbiltzeko:

“En suma, creo que puede hablarse de la balada oral vasca como un género unitario y común a todo el país, aunque la unidad “originaria” aparezca hoy fracturada, y a simple vista sean más perceptibles las diferencias que las similitudes entre el área occidental y el Norte.”

Ondorio honetara iritsi baino lehen, sartaldekotzat ematen ziren baladak –eta sartaldean Bizkaikotzat, batez ere– sortalderago ere –Nafarroan eta are Iparraldean– aurkitu direla dio aurrena. Berdin alderantzitara ere, sortaldekotzat –Lapurdi, Baxenabarre, eta Zuberoa– ematen ziren baladek ere badituztela sartaldean beren aldaerak edo kideak, hurrena. Hona haren hitzak:

“La existencia de un fondo primitivo común en el repertorio de la balada vasca, y la difusión más amplia de ciertos ballad-types que en principio parecían limitados a una tradición local o a una sola de las dos “ramas”, se ha ido imponiendo como evidencia en estos últimos años gracias a las nuevas encuestas y a la aparición de textos inéditos. “Ana Juanixe”, por ejemplo, parecía una balada propia de la zona costera (Mutriku, Ondarroa, Bermeo), en tanto en

cuanto reflejaría un suceso “local” acaecido en Mutriku; se conocían, sin embargo, textos y fragmentos de la zona interior del País, que junto con nuevas versiones nos dan idea de una difusión mucho más amplia (Amorebieta, Galdakao, Lezama, Eibar); súmese las versiones muy notables recogidas recientemente en Arratia, y estrofas sueltas procedentes de Sunbilla y Aranaz, y el resultado es el de una balada poco menos que “pan-euskérica”, puesto que el principio de “Ana Juanixe” sirve de incipit a una versión labortana de un poema dialogado, que en mi opinión no es narrativa, “Atia kiskos jo nion baña...”. De modo análogo, temas baladísticos que parecían confinados a sólo una de las dos grandes áreas del país han resultado tener su contrapartida en la otra. El caso más notable en este sentido es el de “Neska ontziratua”, que representa en la tradición oral vasca el tema baladístico del “marinero raptor” muy difundido en gran parte de Europa. La balada nos era conocida en textos del Norte, con el principio habial “Brodutzen ari nintzen” o “Egun batez ari nintzelarik...”, de gran belleza textual y melódica. Ha bastado, sin embargo, que se publicase completa la versión de Bermeo facilitada a Aitzol por M. Ziarsolo en 1936, y que se recogiesen en la década de 1980 otras versiones en verdad magníficas de Zamudio y Arratia, para que se advierta que el tema baladístico alcanzó difusión general en el país. Un ejemplo último: la balada de “Urtsua”, a que ya nos hemos referido, no era presumible que se difundiese fuera del área pirenaica, en cuanto expone un suceso trágico local del Baztán. Sin embargo Zavala publica un texto vizcaíno

desconocido hasta ahora que tiene evidente parentesco con la balada navarra.”

Egin dezagun, azkenik, beste gogoeta bat aipamen luze honi gehitzeko. Baladaren jatorriko euskararen oihartzunak ere eramaten ditu bere lekuz landako aldaerak. Mañariko aldaera bizkaitarrak euskalki honi, bizkai-euskarari, ez dagozkion hainbat xehetasun ditu. Hitzetan beretan zein morfologian ikusten da kontu hau garbienik. *Apez, begi nabar*, (portuna) *gabea*, zein *gorantzi* mugagabeen dira diogunaren adibide argi.

¹ Hemendik aurrera *Euskal erromantzeak/Romancero Vasco liburua* (EE) izendatuko dugu geure lanaren argigarri eta laburgarri. Liburu horretako balada bakoitzaren eredu markatzeko zenbaki erromatarrez baliatuko gara. Antonio Zavalaren liburuko bigarren eredu aipatzeko honelaxe egingo dugu (EE-II).

² Urkamendi giroko “balada arrunt” gehienak lehen pertsonan eman ohi dira, eta elkarrizketa gutxi izan ohi dute. “Apez beltzaren khantore”-ko aldaera osoenak elkarrizketaz horniturik daude. Nik, egia esan, tradiziozko baladen itxura handiagoa hartzen diot.

³ Jean Haritschelharrek bere “Baladaren inguruan” lanean, *Literatura Biltzarra, II. Euskal Mundu-Biltzarra*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988, 53. orrialdean, hauxe dio gure baladaren gainean: es magnífica.

⁴ Ohar hau buruz egina da. *Por campos del romancero* izenburu machadotarra duen liburuan agertzen da. Gredos argitaldaria eman zuen argitara. Orain ez dugu eskuartean liburu hau.

⁵ Postposizio honen berri ez du ematen *Orotariko Euskal Hiztegiak*. Zuberoko euskaraz ‘(gen) ordrea/iala’ eta ‘(gen) ordrez’ dokumentaturik daude. Gure baladako aukera bitxi bezain polit egiten zait.

⁶ J. Haritschelhar, “L’oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun”, *Euskera*, 1969-1970, XIV-XV, 681 or.

⁷ Lan beraren 509. orrialdean.

⁸ *Gure Herria* aldizkariko 1924ko gehigarri musikaleko iruzkingileek, Nehor eta C. Dufauk, egiten dute ohar hori.


⁹ Garai beretsuetako transkripzio bat baino gehiago daude. Maria Goiri mintegikoak, 1981eko abuztuaren 23an, Jesús Antonio Cid, Koldo Biguri, Gabriel Fraile eta Ruper Lekue izan ziran biltzaileak. Biltokia Dima-Bargundian jaio eta Aranzazu Arratiakoan bizi zen Eduarda Bilbao andreari jaso. Argitaratu ere urte berean egin ziren, 1983 urtekoa da *Euskal baladak. Antologia eta azterketa I, II* (Hordago, Donostia) eta *Idatz & Mintz-Literatur Atalen Sorta, 7*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1983, 16-17 or. Ezagutzen dudan baladaren azterketa monografiko bakarra Igone Etxebarriarena da “*Ana Juanita* baladaren ereduak eta azterketa”, *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak, 4*, Labayru Ikastegia, 1988, Bilbo, 129-177 or. *Idatz eta Mintz* aldizkarian eta *Litterae* 4an transkripzio bera agertzen da. Gure hemengoa ere bera da huskeria bat edo beste gorabehera. Adibide bat edo beste ematearren: *gerrirañoko* irakurtzen dutena, oraingoan garrirañoko jartzen dugu.

¹⁰ Ez dugu hemen esan nahi txarto eratua dagoenik, inondik inora ere. Aurkikunde polita dela deritzat, hitz bitxi eta polita, ene ustez. Eresi hitzak esangura asko ditu, guztiok dakigunez. Lardizabalentzat, esaterako, “asmo (handia)” da. Hil-eresiak, ordea, ez luke esangura bat baino gehiago izango “endecha”.

¹¹ Ez dago esan beharrik Pepa bere hutsean ere sarri xamar ikusten dugula dantza kopletan. Izen hau zein Mari Pepa delakoak ez dira, itxura guztiak erakusten dutenez, tradizio zaharrekoak. Zeanuriko kopladia ikusi nahi duenak: Adolfo Arejita “Zeanuriko koplak zaharrak”, Eusko Ikaskuntzako Cuadernos de Sección direlakoen Literatura saila EIHIL, 1983, II, 223-236 or.

¹² Aldaera guztiak nahi izatera ikus bitez Azkueren kantutegi eskuidatzian: 005-016-001-541 or.; 005-014-002-147-61 or.; 001-002-001-869-356 or.; 002-003-002-218-602 or.; 003-010 68 or.

Koaderno gor(r)ia



Klaseko atetik sartzen ikusi nuen otsaileko goiz horretan berean jakin nuen neska harentzako istorio bat idatzi behar nuela. Artean ez nekien hain belarri politak zituen hark zelan zuen izena, ez nekien ezer, baina koaderno gorrian zeozer idatziko niola, hori argi neukan. Haren ibiltzeko modua ere izugarri gustatu zitzaidan, atea zelan zeharkatu zuen, beldur barik. Batez ere horregatik jo nuen begiz. Eta belarriengatik, jakina.

Ni, garai haietan, merkatua eta ekonomiarekin zerikusi gutxi zuten kontuekin bueltaka ibiltzen nintzen klaseetan, berba eta letrekin jolasean. Batek baino gehiagok esango luke denbora alferrik galtzen nenbilela unibertsitatean, zertarako ote nenbilen enpresa-ikasketak egiten. Ulertzen nuen, baina nik beste ikuspegi zeharo diferentea neukan; izan ere, pupitre haien artean bezala ez bainuen inon idazten. Han egon ezean

ez zitzaidan ideiarik etortzen burura, eta koadernoak alferrik xahutzen nituen. Klaseko koaderno gorrian, berriz, egunean-egunean asmatzen nuen istorio txiki bat. Adibidez, behin estatistikako irakaslearen betaurrekoei istorio bat asmatu nien, eta iruditu zitzaidan eurak ere poztu egin zirela nolabait, eta irakaslearen begirada goibel hori alaitzen-edo saiatu zirela momentu batez. Garaipen txikiak izaten nituen.

Kontabilitateko klaseari esker jakin nuen belarri polit eta ibilera beldurbakodun neska izena. Irakasleak beti-beti zerrenda pasatzen zuelako izan zen hori, eta horrela, izen bat asmatu behar izatea aurreztu zidan bide batez. Bestela, beste izen bat ipiniko nion neuk. Banituen batzuk buruan: Eukene, Garbiñe, Nekane... “e”z amaitutako izenak baino ez zitzaizkidan bururaten. Horretan behintzat asmatuko nuen, azkenean Oihane baitzen. Kasualitatea.

Diplomatiko baten alaba bihurtu zen Oihane koaderno gorrian. Ia bizi osoa emana zuen atzerrian, Mexikon, Madagaskarren eta Thailandian, besteak beste, denak ere oso herrialde exotikoak, batez ere Thailandia, uste nuen nik. Horregatik zuen berak ere hain aurpegi exotikoa, herrialde horietan hazi zenez gero hango giza-giroaz kutsatu zelako. Ondorioz, azala beltzarana zuen, mexikar peto-pettoa, ilea bezalaxe. Belarriak zalantza barik asiarrak ziren, erabateko belarri asiarrak zituen, Indotxinakoak. Begien kontua, ostera, ez zegoen horren argi, aire, kultura eta hizkuntza guztietako eragin eta printzez beterik zituelako; arraza-anabasa itzela zuen begietan, jatorrizkoa edertzen zuen nahasdura berezia, inondik ere. Gurasoak banandu zirenetik, ordea,

bizimodu nomadari utzi, pisuetan bizitzen hasi diren ijitoak bezala, eta Bilbora etorri zen amarekin, Indautxun bizitzera, oso pisu dotore batera. Koaderno Oihanek pelutxez beteriko logela zeukala eta pintura erakusketa txikiak dituzten tabernak ikaragarri gustatzen zitzaizkiola hasi zen esaten, Thailandian bizi zenean sarri joaten zelako koadroak pintatzen zituen Gisèle izeneko frantses baten tabernara. Hondartzatik oso hur zegoen Gisèlen taberna, eta hark, iluntzean, koadroak erakusten zizkien Oihane eta bere ahizpa txikiari. Horregatik gustatzen zitzaizkion hainbeste. Koadernoak horixe zioen, behinik behin.

Pozarren konprobatu nuen gustatzen zitzaiola koadernoari Oihaneri buruz hitz egitea. Horixe besterik ez hasi zen egiten apurka-apurka, Oihanerentzat istorio txikiak asmatzen.

Kurtso horretan oso gutxitan joaten nintzen eskolako lehen ordura, ez bakarrik Bilbobusa leporaino joaten zelako goizeko zazpi eta erdietan eta esertzeko lekurik egoten ez zelako, ez, hori aitzakia merkea izango litzateke. Niri ez zitzaidan batere gustatzen goiz esnatzea, eta esnatuta ere, ohean agorantzen nuen harik eta erlojuan ganorazko ordu bat ikusten nuen arte. Baina neguko goiz horretan joan egin nintzen makroekonomiako eskolara, salbuespen itzela egin nuen nire aztura monolitikoetan (gero onartu behar izan nuen Oihane ikusteak zeresana izan zuela aldaketa horretan) eta hantxe nengoen goizeko zortzietan Elkanon, sekulako biharamuna duen baten aurpegiarekin. Nire betiko aulkian jesarri –gelaren atzeko partean noski– eta karpeta pupitrearen azpiko bandejan jartzera joan nintzenean kontu-

ratu nintzen hantxe zegoela nire koaderno gorria, ahaztu egin nuela aurreko egunean. Ahaztu, zeren normalean huts egin gabe motxilan sartu eta etxera eroaten nuen. Negozio txarra, behin koadernoan erreparatuz gero zail egiten zitzaidalako zenbakiei arreta eskaintzea. Zerbait berezia gertatu zen orduan. Koaderno zabaldu eta azkene-koz itxi nuenean baino berritsuago zegoen, beste letra mota batez hitz egiten zuen azken orrialdean. Nireak ez ziren letra batzuekin, letra biribil ia perfektu batzuekin. Eta Oihane ez zen bati buruz. Nitaz ari zen berbetan koaderno gorri ostia hori.

Harritu egin nintzen, ez dut ukatuko.

Bolada horretan bakarrik bizi nintzen Gorriaren arabera, ama dantzari ukrainiar batekin bizi zelako hamar urte nituenetik eta aita Karakorumen zelako bi hilabeterako, “Al filo de lo imposible” programako taldearekin, oinak izarretan, Iñurrategitarrek zeuzkaten bezala. Seme bakarra nintzen, gainera, eta amama bisitan usu etortzen zitzaidan arren, etxea nirea nuen soil-soilik. Aitak erabateko konfiantza zeukan nigan, arduratsua eta heldua omen nintzelako hogeita bat urte besterik ez izan arren. Nik ederto aprobeztatzen nuen egoera etxean lasai-lasai egoteko, idazteko (Gorri gaixoak ez zekien ez nintzela etxean idazteko gai) eta lagunekin parrandak egiteko. Gehiengotan horrelakorik jazotzen ez bazen ere, gorriak zioen egun batean Bilbin topatu nintzela neska-lagun ohi batekin gaueko ordu bietan eta etxean bakarrik egoteak itzelezko mesedea egin zidala, gauzak eta mihiak korapilatu zirelako, igogailuan berobero eginda heldu ginelako etxera...

Nire intimitateak ez zituen kontaktzen ba

koadernoak! Nahiko intimitate intimoak gainera, asmatuak izan arren!

Teatroa asko gustatzen zitzaidala eta aktorea izatea nire amets ezkutua zela eta beste zenbait gauza ere esaten zuen koadernoak orrialde horretan, baina ja ez nion kasu handirik egin. Erabat aztoraturik nengoen neska lagun ohiarena irakurri ostean, igogailutik kanpoko konturik ere aipatzen zuelako, eta xehetasunetan sartzen zelako, umeltasunetan. Ederto sartu ere.

Goiz horretan bertan Oihaneren intimitate txiki batzuk etorri ziren azalera: etxeko bainu-gelan aparraz beteriko jacuzzian ordubete eman zueneko aipatu zuen Gorriak, zelan egon zen ura hoztu zen arte, ur burbuilei ipurmasailetan edo bularretan jolasten utziz. Thaiandiako mutil baten kontuak ere esan zituen, adibidez mutil hori eta Oihane itsasora begira luzaroan egoten zirela, gero laztanetara eta musuetara pasatzeko. Oihane zoriontsu bizi zen garai horretan Indikora begira, eta min handia hartu zuen Thailandia utzi eta amarekin Bilbora etorri behar zuela jakin zuenean. Uler-tzekoa zen, beraz: horixe zen Bilboko mutilekin traturik nahi ez izatearen arrazoi nagusia, arratsaldero urruneko gazte horrekin txateatzea nahiago zuen-eta ume mokoak iruditzen zitzaizkion klaseko mutil ahobero horiekin berba egitea baino. Thaiandiako mutilari gustatu egiten zitzaizkion Oihanek emailez bidaltzen zizkion argazki pikanteak.

Makroekonomiako klasea izaten nuen lehen orduan barikuan ez beste astegun guttietan, eta konturatu orduko dastatzen hasia nengoen Bilbobusaren zazpi eta erdietako estuasunak. Txintxo-txintxo egoten zen Gorria nire zain mahai azpiko bandejan, eta

Oihanek atea beldur barik zeharkatzen zue-
nean “egun on” esaten zidan, zortziak izate-
ko lau edo hiru minutu falta zirenean. Buse-
ko estuasunen aldean paradisua. Zer esanik
ez, Gorriak intimitate-kontari jarraitu zuen,
bai nire letrekin bai Oihanerenekin, eta bat-
zuetan hain ur irakinetan sartzen zen, ezen
azala ere gorriago jartzen baitzen. Gorri
apala izatetik gorri lotsabakoa izatera pasa-
tzen zen, eta denboraren poderioz lotsaba-
koak gain hartu zion apalari. Noizbehinka
apala nagusitzen zen, jakina, nire txikitako
oporrak kontatu zituenean esaterako: zelan
joan nintzen behin gurasoekin –artean elka-
rrekin zeudenean– Egeoko uharteetara ekai-
nean, eta Santoriniko etxe zuriska batean
zelan egon ginen goizero etxeko jogurra
gosaltzen. Edota Oihane Mexiko DFn bizi
zenean zelan sentitzen zen kartzela batean
bezala, eurak bizi ziren etxea alarmaz josita
eta hesiz inguratuta zegoelako. Baina ez
zuen denbora luzerik agoantatzen Gorriak

beste eremu berdeago batzuetan sartu barik,
eta kolorea apaltzen bazen egun batean,
hurrengoetan sutan jartzen zitzaizkion aza-
lak.

Ez dakit nik zenbat denbora eman
genuen horrela –urte batzuk ere igaro dira
eta sekula ez dut memoria ona eduki–, aste-
lehenetik eguenera elkarri “egun on” esaten,
zortziak izateko lau edo hiru minutu falta
zirenean, eta koadernoaren azalak gorria-
gotzen. Hiru aste, hilabete-edo izango zen,
gehiago agian, nik bero-bero eginda eman
nuen aldia. Iraupen kontuak ez dauzkat argi
beraz, baina ondo baino hobeto daukat
gogoan apirileko eguazten batean Gorriaren
orri zuri guztiak zuri beltzean zeudela, eta
zera kontatu zidala Oihaneren esaldi labur
eta letra borobilarekin:

*“Koadernoaren orriak agorturik. Kitto.
Lodikotea da Gorri hau, potoloa eta azal
gogorrekoa, baina bizitza honetan guztia
bezala, hau ere bukatu egin da. Bereztasu-*



na hantxe egongo da betiko, hala ere, zeren denborarekin gastatu beharrean, azalak inoiz baino distiratsuago daude, atzekoa zein aurrekoa. Anartzek jakin badaki zergatik gertatu den hori. Pena apur bat hartu du, susmatzen du beste koaderno gorri bat hartuta ere ez duela izango honek duen xarma, izpiritua. Pikutara joango dela dena, ama ukraniar zatar horrekin joan zenean dena pikutara joan zen moduan. Ni ikusi nau orduantxe atletik sartzen eta berriro geratu da belarri asiarrei so. Ez diot egunonik esan. Gure begiradak gurutzatu egin dira une batez, baina Anartz segituan makurtu da koaderno gorrirantz. Begirada altxatu duenean, oster, ez nau ikusi betiko lekuan jarrita, laugarren ilarako seigarren aulkian. Burua berriz goratu eta lehengo lekuan ikusi nau. Zutunik. Anartz bera ere zutitu eta nigana etorri da, begiekin esaten edo ea zer dela eta ez diodan “egun on” esan, “koaderno berria hasiko ote dugu?”

galdetu nahi balu bezala. Ez nau ustekabean harrapatu. Begiradaz loturik geratu gara atletik irten dugun bitartean, eta ezpainez gero, komunen ondoan dagoen pasilloko txoko gorde hartan. Begietatik ezpainetara eta ezpainetatik mihi jokora egin dugu salto segundo batean.

Diplomatikoaren alaba pinturazaleari titi-puntak gogortu zaizkionean, aktorea izan nahiko lukeen alpinistaren semearen poltsiko aldean zerbait gogorra nabaritu dut. Ondoren, kosk umel bat belarri-gingilan.”

Gorriak esaten zidana irakurtzen amaitu, burua altxatu eta Oihane ikusi nuen atletik sartzen. Zelako belarriak! mihiaz gustura dastatuko nizkiokeela pentsatu nuen. Berehala makurtu nintzen berriro koadernora, erdi-lotsaz.

Betiko moduan laugarren ilarako seigarren pupitrera so egin nuenean ez nuen Oihaneren arrastorik aurkitu. Ezta bere belarriena ere.



JON AREGO

Lesteko moila (II)

Bat bitan banatzen da

**Bat bitan banatzen da
Bat bera bitatik eratzen den modu berean,
justizia eta injustizia
egin eta desegin arte**

**Bat hirutan banatzen da
Bat bera hirutara osatzen den tankera berean,
luze, labur, leun,
barru-barruraino ukitu arte**

**Bat lautan banatzen da
Bat bera lautan osabetetzen den bitartean,
gogor, gose, gura, gabe,
norberarena asetu arte**

**Bat hostean banatzen da
Bat bera hostean moldatzen den ber
argi, artez, aratz, ahaltzu, azkar,
asmoak goi mailara eraman arte**

Hirukoa

I Tantiuan

Ur

Ur zabala, gazia,
Itsas ur abegikorra
norberaren geografia
tantiuan
zirriborratzen duena

Asmoa Iera doa

Kai Abiya uharte bakartura,
Inoiz oinezkorik zapaldubakoa;
Gero, abantean, badiara dator,
Sabarri haitz zuloan kabi ederra
egitera

Non, bestalde, halakorik,

Lapatzan baino?
Geldo, lasai, bare doakit asmoa,
Hango portu harrizkoan
babestua.

Haitz artean putzu gardenak,

bertara ere,
harrikixkerrak,
ur tanta askeak
eta izkira meheak

Badator, gero ere,

aldamenean,
Natxixuko adarra;
Ibilbide nagusietan dihardute
hauts arteko
bidezidorretan,
lagun ahaztuen durunda eta gomutek,
joanaren mamu eta espirituek

Nahasian, maldan gora,

Lehorreko baserriek
Itsasoari aurpegiratzen dizkiote
euren jakinmina eta sorgaitza

Badoaz, alabaina, asmoa eta gogoia
eta Elantxobeko harri murrua dator, izu
laborrian,
mendeen mendeetan izandako gordelekuak
besozabal hartzen gaituela

Hura dut itxibidea,

Hura geografiaren azkena,
Hura ere,
zin-zinezko habiatokia,
nire haurtzaroarena

II Ama

Behinola asmatu nuen
—umekondo nintzen—
zu nire aldamenean zinela,
gozo eta amultsu,
amak semea laztan zezakeen modu bakanean

bat-batean, zure berri
ez nuen izan;
falta zinen,
nonbait, nire akorduan, nire gomutan;
gerora, ostera ere,
jakin nuen zure berri,
mingots eta bortitz,
norbaitek, belarrira, hila zinela esan baitzidan


orain, ez dakit,
umezaroaren behe-lainoan,
zu ote zaren
ala
besteren bat;
badakit, ostera,
ez dudala zure irudia inoiz ere zirriborratuko
eta argazki horiztatuak,
mende erdi bat geroago,
ez direla besterik izango
izan zitekeenaren
isla ez egiazkoak baino.

III Gernika

Sarri-sarri nator zure magalera,
Oi zuhaitz bedeinkatua!
Zure aurrean ahuspeztua,
Maiz egin dut ahalegina,
Zure ereserki sakratua abesteko

Eta buruak ez dit ematen,
gogoratzen baititut zure kale odolduak
eta bihotzak ez dit barkatzen,
hilak ez baitira biztuko

Lasaitu, jabaldu nahi dut nire burua
Ezinean bainago,
Irudiek, mar-mar, hots egiten didate:
Utikan! Utikan!
Kaletik nator, jendea dago,
Honetaz eta hartaz hitz egiten da,
Isilean, alabaina, data hura
Aipaezina baita.
Hura pitzadura,
Hura arrakala,
Arimaren zola hautsi zuena,
Eta urtez urte, egunero-egunero,
Gernikaren egunsentia zamatu duena.



A lingua que falo

Eu falo a lingua da noite,
a lingua da noite da pedra;
nik gauaren berbakera ahoskatzen dut,
harrizko gauaren berbakera,
hain juxtu ere

Eu falo a lingua do pobo,
do pobo sen nome;
nik herriaren hizkera darabilt,
izenik gabeko herriarena,
hain zuzen ere

Eu falo a lingua dos homes,
dos homes do traballo e da vida;
ni, lanean eta bizitzan,
gizonezko elearen jabe naiz

Eu falo a lingua das mulleres,
das mulleres do silencio e da solitude;
nik andrazkoen mintzaira dakit,
sarritan isilean eta bakar-bakarrik banago
ere,

horrexegatik uneoro aldarrikatzen dut
nire finis terrae esateko eskubidea:
giza seme-alaba naiz,
sentimenduak eta sentimoduak ditut,
nireak dira, eurena naiz
herririk eta izenik ez badut ere

Bizirik dirauen Jainko hil(arazi)a

1. Euskal literaturazale bati galdetuko bage-
nio zein edota zelakoa den Jainkoaren presen-
tzia gaur egungo euskal literaturan, zera eran-
tzungo liguke, seguru asko: “Jainkoa desagertu
egin dela euskal literaturatik”¹. Gure harriduraz
jabeturik, baliteke literaturazale ausart horrek
honelako ñabardura batez jarraitzea: “Jainkoa-
ren presentzia ugaria (ugariegia ote?²) izan da
euskal literaturan, sortu zenetik bertatik XX.
mendearen azken laurdenera arte (1970-75era
arte). Gaur egunean, oster, inoiz gutxitan
agertzen zaigu Jainkoaren izena euskal literatu-
ra idazkietan. Jainko edo “Urtzi” zelako hori
desagertu edo hil egin da³. Euskal idazleek,
Nietzscheren aholkuari kasu eginez, Jainkoa
hilarazi egin dute. Hutsune hori nabarmenagoa
zaigu, lehengo mendeetan, Jainkoaren presen-
tzia ugaria baino ugariagoa izan zitzaigulako;
hutsala edota aspergarria ere bai testu askotan,
batik bat, literatura-testutzat hartzen baditugu
Bibliaren itzulpen hutsak edota sermoiak dire-
nak. Nola Euskal Herriko elizak bete-beteenak
izatetik huts-hutsenak izatera pasatu diren,
halaxe euskal literatur testuetako Jainkoaren
aipamenak ere. Ugariegiak izatetik aipamenik
bat ere ez izatera. Ohiko topikoak, agian. Topi-
ko guztiek, haatik, egia bat, egiaren zati bat
azaltzen digute; eta gezur bat, gezurraren zati
bat, ere bai.

Eliz gauzetan adituek erlijioaren egoera
gaur lehengo egoeratik ezberdina dela azpima-
rratzen digute. Sinestunen kopurua jaitsi egin
da, nabarmen gainera. Kalitatea, haatik, a! kali-
tatea... lehen baino askoz hobea omen da. Ba
ote liteke euskal literatura erlijiosoari ere horre-
lako zerbait gertatu izana?

Egia esan, erlijio gaiek presentzia ugaria
izan dute euskal literaturan Bernard Etxeparek
lehen euskal liburua idatzi zuenetik aurrera.
Poemategi horretako zatirik handiena betetzen
duen *lehen* olerkiak “Doctrina Christiana” du
izenburu⁴. Erlijioaren presentzia ugariegi hau
zorionekoa izan zekigukeen *euskaltzaleoi*, eus-
karazko beste testurik egon ezean batez ere; ez,
baten batek pentsa dezakeenez, elizaren “euskal
bihotzen erdian” suposatzen duen *monopolioa*-
gatik. Izan ere, Joannes Leizarragaren *Iesvs
Christ Gvre Iavnaren Testamentv Berriak* edota
Pedro de Axularen *Gerok* eragin handiagorik
izan balute euskaldunen idazkietan, beste kuku
batek joko zigukeen euskal literaturaren ohia-
nean (Krutwigek dixit eta lehen Villasantek eta
Gabriel Arestik ere bai). Azken buruan, alema-
nieraren zabalera eta batasunerako erabakiga-
rria izan zen Luteroren *Bibliaren* itzulpena, eta
Danteren *Divina Commediak*, Italiako zatiketa
politikoaren gaintetik, ‘florentino more’ hizkera
zabaldtu eta sendotu zuen italiar penintsulan

zehir. Antzeratsu gertatu zen Bibliaren itzulpe-
nekin Galesen, Morabian, eta abarretan⁵. Gure-
an, zoritxarrez, hizkuntza arloan bederen, eus-
kal erlijio-liburuen eragina murriztagoa izan
zaigu, aspaldidaniko diglosia madarikatua dela
kausa, seguru asko. Eragin murriz hori ez da,
inolaz ere, izan euskal erlijio-idazleak traketsak
izan direlako⁶, goi mailakoak izan ohi baitira
eta batzuen batzuk mailarik goienekoak ere bai,
Axular kasu, ez soilik hizkuntzaren ikuspuntu-
tik, baita edukiaren aldetik ere. Euskal eliz
idazlerik gabe, baliteke euskara hilik egotea,
aspaldidanik gainera. Erlijio idazle izan genuen
Asteasuko Juan Bautista Agirre, “bearbada len-

garaiko, ots, 1880’tik baiño lenagoko, gipuzko-
ar idazlerik onena. Izkera jatorra du, berezkoa,
beti maixu, edozein burutakizun egiazko euskal
senez adierazten diguna”⁷; baita Francisco
Ignacio de Lardizabal, zeinen *Testamentu Zar-
eta Berriko Kondaira edo Historia* “agertuz
gero ederki zabaldu zen Gipuzkoan barrena...
beste edozein euskal liburu baino gehiago
bearbada eta, egia esan, ondo merezi zuen
horren zabaldua egotea”⁸; eta erlijio idazletzat,
“un místico extraño”, har dezakegu, hartu behar
hobe, Nikolas Ormaetxea *Orixe* ere, “acaso en
varios aspectos el autor más importante de la
literatura vasca”⁹.



2. Euskal literatura hizkuntzaren kalitatera-
ko aprobetxatu ez dugun euskal *erlijio*-testuen
ugaritasuna *guztiz* desagertu omen da, gaur
egunean; *bat-batean*, gainera. Baina gauzak ez
omen dira horren erabatekoak eta bat-batekoak
izaten. Ibon Sarasolari jarraituz, lau multzotan
bana dezakegu gerra zibilaren ondorengo eus-
kal idazleen zerrenda: XX. mendearen hasiera-
ren inguruan jaiotakoez osatutako lehen mul-
tzoan, abadeek edo¹⁰ itzal handiko lekua bete
zuten euskal literaturaren ortzian: Jean Elissal-
de *Zerbitzari*, J. A. Irazusta, Nikolas Ormae-

txea *Orixe*, Manuel Lekuona, Nikolas Barrene-
txea, Nemesio Echaniz, Pierre Lafitte, Joakin
Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, Ignazio Goiko-
etxea *Gaztelu*, Santiago Onandia, Lino Akeso-
lo, Pierres Larzabal, Jaime Kerexeta, Nikolas
Alzola *Bitaña*... Bigarren multzoan, 1920-1940
artean jaiotakoez, abadeek edo, gutxitu egin
badira ere, presentzia nabarmena mantendu
dute euskal letretan: Salvatore Mitxelena, Jean
Diharce *Iratzeder*, Luis Villasante, Junes Case-
nave, Juan M. Lekuona, Patxi Altuna, Bitoriano
Gandiaga, Dionisio Amundarain, Salvador Gar-

mendia, Gotzon Garate, Manex Erdozaintzi-Etxart... Hirugarren taldean (1940-1950 bitartean jaiotakoak) askoz murrizagoa da abadeen edo presentzia euskal literaturgileen artean: Gabriel Aresti (lehenago jaioa bazen ere), *Mikel Zarate*, *Xipri Arbelbide*, Arantzazuko Seminarioan sorturiko JAKIN taldea, Lurdes Iriondo, Mikel Lasa, JosAnton Artze, Jose Azurmendi, Xabier Amuriza, Ricardo Arregi, *Patxi Ezkiaga*, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Xabier Kintana, Luis Haranburu-Altuna, Arantza Urretabizkaia, Anjel Lertxundi, Joan Mari Irigoien, Patxi Zabaleta... (hauetariko batzuk seminarioetan egon edota abade izateraino iritsiak ziren). Laugarren taldean (1950etik aurrera jaiotakoak), ez dugu abaderik edo bat ere aurkitzen: Joxe Aguxtin Arrieta, Koldo Izagirre, Bernardo Atxaga, Pako Aristi, Juan Kruz Igerabide, Joseba Sarrionandia, Patziku Perurena, Iñigo Aranbarri... Euskal literaturan erlijio-arekiko etendura, beraz, *laugarren talde honetan* gertatu da, 1970-75 urteen inguruan, beraz, lehenagoko ilunabarrak aurreko belaunaldian ezari-ezarian gautzen hasiak bazitzaizkigun ere. Goibelaldi hau ilunagotu egin zen, bestalde, literatura lanak biltzen zituzten erlijio aldizkariak (*Zeruko Argia*, kaputxinoek sorturikoa

1919. urtean, *Anaitasuna*, frantziskotarrek sorturikoa 1953an, *Jakin*, Arantzazuko seminarioan sortua, 1953. urtean), diktadura egun ekaitsetan, elizan izandako basbetokitik alde egin zutenean (*Jakin* 1967, *Anaitasuna* (1976?), *Zeruko Argia* → *Argia* 1980), are eta guztiz laiko, 'laikoegi' agian kasuren batzuetan, bihurtu arte.

Azken belaunaldiaren Jainkoari buruzko isilaldi honek, haatik, ez du adierazten Jainkoa azken urteetako euskal literaturan agertzen ez denik. Azken aurreko belaunaldietako zenbait idazlek literatura testuak argitaratzen jarraitu dute: Jean Diharce *Iratzeder: Fededunen arbaso* (1977), *Biziaren Olerkia* (1983), Luis Villasante: *Kristau Federaren Sustraiak III. Eliza* (1984), *Kristau Fedea. Teologia-saileko azalpena* (1986), *Angeles Sorazu: Bizia eta mezua* (1990) (jarraituko dugu honako hauek euskal literatura-sailean sartzen?), Bitoriano Gandiaga: *Gabon dut anuntzio* (1986), *Ahotsik behartu gabe* (1997). Euskal literaturan azken urteetan Jainkoa guztiz desagertu dela aldarrikatzen dutenen iritzia ez da, beraz, guztiz zuzena. Egon badago Jainkoa, partzialki eklipsatuta bada ere (partzialki baino gehiago agian).



3. Dena den, iritzi orokor horri sartu dizkiogun xehetasuntxoak nabarmentzeko ez nintzen artikulu hau idaztera mugituko. Nire ustez *garrantzi handikoa* zaigu Jainkoaren presentzia azken urteetako euskal literaturan. Ez Jainkoaren agerpenak ugariak direlako, *kalitate* edota *jatortasun handikoak direlako baizik*. Gaurko erlijio krisiaz aritzerakoan, teologo eta pastoralistek *sinestunen* kopurua jaitsi dela onartuta ere, sinestunen kalitatea handitu dela azpimarratzen dute: “lehenengo sinestunak dotrinaren edo katezismoaren jarraitzaile zintzoak izaten ziren, ihardesten digute, gaurko sinestunak, ostera, *esperientzia* sakonean oinarritzen dute beren sinesmena”. Lehenengo sinestunen literatura testuak eduki bakar baten *errepikapenak* izan ohi ziren, salbuespenak salbuenpen, Salvatore Mitxelenarena, kasu, edota Nikolas Ormaetxea *Orixe*.

Gaurko sinestunen testuak, ostera, askozaz interesgarriagoak zaizkigu, esperientzia pertsonaletan oinarrituta baitaude, eta edukiaren aldeetik askoz aberatsagoak dira, kopuruari begira askoz murriztagoak izan arren.

Areago ere. Erlijio literatura arloan, euskaldunok pribilegiatuak garelakoan nauzue. Pribilegiatuak izaten jarraitzen dugu: kantitateagatik, lehen; kalitateagatik, orain. Gure txikitasunean –lurralde eta hiztunei begira, noski– baditugu literaturgile sinestunen testigantza mamitsua eta jatorra; eta, euskal literaturaren zabalera kontuak hartuta, ni neu, bederen, opa-roa eta adierazgarria dela esatera ausartuko nintzateke. Jainkoa hil dela euskal literaturan barreiatzen dutenek begiratzen ez dakitela uste dut (ilargiaren eta atzamarraren ipuina ote?), ala euskal sinestunengan katarsia eragiteko probokazioaz baliatu nahi izan dute, nonbait.



4. Laburrean bada ere, lau euskal idazle baino ez ditut aipatuko. Ez, noski, lau idazle hauen sinesmen esperientziaz sakon aritzeko (horretarako jatorrizko testuetara jo beharko duzue –eskergarria izango zaizuelakon nauzue eta–), ezta beraien *idazkeraren* balioak nabarmentzeko ere, idazlearen sinesmen esperientzia

zein markarik nabarmenenak azpimarratzeko baizik.

Lehena, Manex Erdozaintzi-Etxart (1934-1984) dugu¹¹. Nafarroa Beherekoa. Frantziskotarra. Non datza, sinesmen ikuspuntutik, Manexen garrantzia edo jatortasuna? Manex zubigizaki dugu: aurremodernitatetik modernitatera

igarotzen laguntzen diguna, Vatikanoko II. aurre-kontziliotik post-kontziliora. Arlo zail horretan, ekin eta ekin ibili zen Manex, sinesmen mezuak argitzen eta zehazten, baita pastoralta arloan gauzaten ere: obraz eta idazkiz. Filosofia eskolastikatik filosofia pertsonalistara (Emmanuel Mounier...) urratsak eman zituen, eta, *aldien ezaugarri*ei so, iradokitzaile eta eztabaidatsua izan zaigun Askapen teologiaren ildoan aritu zen, herri eta gizaki (langileria) zapalduen askatasuna bultzatuz (euskaldunena barne), oinarritzko kristau elkarteak eratuz (Elizgintza-Herrigintza) eta espiritualtasun berria bilatuz. Gaur egunean, tiroarrek eta troiatarrek, kontserbadoreek eta aurrerakoiek, beren tesiak eta praktikak defenditzeko Vatikanoko II. Kontziliotik tiratzen dutenean, argigarriak zaizkigu Manexen gogoetak, olerkiak eta kristau elkarteentzako berak prestatuak materialak (literatur mailakoak, ez gutxi), batarengatik edo bestearengatik Vatikanoko II. Kontzilioaren inguruko zurrumbilora itzuliak gara eta¹².

Bigarrena, Bitoriano Gandiaga (1928-2001). Bizkaiko Mendatakoa. Frantziskotarra hau ere. Gandiagaren erlijiozko olerkien garrantzia alde askotatik azpimarra dezakegu. Batetik, Gandiaga da bizkaieraren plastikotasuna eta arintasuna oinarritu eta sendotu zituena (gaztelarekin Ruben Dariok eta gipuzkerarekin Lizardik egin zutena¹³). Sinesmen aldetik, Bitoriano Gandiagak bere poemategietan islatzen duen erlijio esperientzia bitxia eta aberatsa zaigu. Gaztaroko olerkietan, *Elorrin* batez ere, izadiaren eta erlijioaren arteko loturak landu zizkigun, gure artean gutxitan bezala¹⁴. Dena dela, nire ustez, BGren erlijio esperientziarik harrigarriena modan dagoen *inkulturazio* arloan izan zen. BGren erlijioarekiko zama gogorrak,

gogorrekiak bera bezalako sentsibilitate eta 'zintzotasun' handiko gizaki batentzat, arindu zitzaizkion, Jainkoa Artasoko 'ama' ere badela aurkitu zuenean. 'Ama' metaforaren arabera BG sinesmena eta etika berbizitzen hasi zen¹⁵, eta HGBko olerkietan berbizitze horren testigantza harrigarria utzi zigun, guztion mesedera. Non aurkitu zituen BGk Jainko Amaren zantzuak? Non eta Orbelaungo baserrian ikasitako euskal mitologian: Artasoko salmuetan azaldu ziguna, euskal herrikoak, sinesmen aldetik, guztiz (nahiko?) kolonizatuak garela erakutsiz bidenabarrean. Ikasgaietako oineko oharrrak ere exijitu ohi zituen irakasle zorrotzak (zigorzaleak ere) euskal erlijio jatorraren ildoan aurkitu zuen sinestunok gizakiei egin diezaiekegun mesederik ederrena mundua edertzea zela, hementxe zoriontsu bizi ahal izan gaitezten, Arantzazuko inguruko bideskak eta basoak garbituz eta zainduz, esaterako, edota giza pobrezia eta mina arinduz, ahalik eta lasterren.

Hirugarrena, Xabier Lete dugu (1944). Oiartzungoa. Xabierrek biziki esperimentatu ditu modernitatetik posmodernitaterako krisia. Errelato nagusietan, iraultza barne, sinestun konprometitua izatetik errelatu txikira eta gizaki konkretu minduarengana igarotzea. Jainkoaren irudi aurremodernoa arbuiatzetik (haserrez, agian), Jainkoaren beharra edo hutsunea eskuan, bihotzean, hartzera¹⁶. Jainkoaren presentzia, inplizitua zein esplizitua, sarri agertzen da Xabierren olerkietan, nahiz, gaztarokoetan batez ere, tonu edota mezuagatik, Jainkoren edota erlijioaren guztiz kontrakoak edo direla eman¹⁷. Horretan agertzen zaigu X. Leteren erlijio-olerkien interesa. Batetik, Jainkoaren idoloen kontra altxatzen delako gizatasunaren alde, eta bestetik, Jainkoa ukatzetik Jainkoa

onartzeko xendrari jarraitzea posible egiten digulako, fedearrekiko paradigmak aldatuz, noski: lege zein aginduetatik gizakienganako (gu geu, ahulak zein gaixoak barne) errukira. Eskergarria da, bestalde, Xabier Lete ez dela lotsa izan bere sinesmen bilakaeraz berba egiteko elkarrizketa mamitsu batean baino gehiagotan¹⁸. Elkarrizketa horiek, euskal literaturan sartu beharko genituzke, ez soilik testuak guttiz landuak direlako, X. Leteren olerkiak ulertzeko eta dastatzeko ezinbestekoak zaizkigulako ere.

Laugarrena, JosAnton Artze dugu (1939). Usurbilgoa. Zerbaitengatik nabarmendu beharko banu JosAnton Artze, edozein formapean edertasunerako daukan sentsibilitate edo fintasunarengatik bereiziko nuke. Begiratu besterik ez dugu egin behar nola JosAntonek bere olerki liburuen argitalpena artisau lan bihurtu duen¹⁹. Honelako arte giroan, gauzarik xumeenak, txalaparta kasu, antzektokirik hautatuenean aurkez daitezke, ohore guttiz, gainera, entzuleen lilurarako. Edertasunerako xendra honetan, JosAntonek Jainkoaren misterioarekiko erlazioak sorrarazten dituen edertasun lorratzak²⁰ nabarmentzen dizkigu hala bere olerkietan nola bere errezitaldietan. Edertasunarekin lotura horretan datza, agian, JosAtonen sinesmenerako ekarpenik bitxiena: eguneroko errealtate xumeetan aurkitzen ditu JosAntonek Jainkoaren lorratzak, ‘edertasunaren errainuetan’, hain justu, von Balthasar-en hitzez esateko²¹: *Dena* pusketetan (das Ganze im Fragment), amaren baserriko bizitza arruntean²², kasu, anaia maitekorraren heriotzan²³: misterioaz (Misterioaz?) iragazitako eguneroko errealtatean²⁴. Otoitz edota gurtze bihurtzen zaigu edertasunaren aurrean miresmena.

Zilegi bekit artikulua hau erlijio iruzkin batekin bukatzea. Herria Jainkoaz ahaztua zegoelako etsi-etsian zebilen Elias profeta Jainkoa non aurkitu ote zezakeen zoro eta galduta eremuan zehar. “Haize zakar indartsuak jo zuen; mendiak urratu eta haitzak zartatzen zituen. Jauna, ordea, ez zen haizean. Haizearen ondoren lurrikara izan zen; Jauna, ordea, ez zen lurrikaran. Lurrikararen ondoren, sua; Jauna, ordea, ez zen suaren ere. Suaren ondoren, surmur apal baten hotsa. Entzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen bere soingainekoaz; gero, irten eta zutik gelditu zen leizearen ahoan, eta ahots batek galdengin zion: Zertan zaude hemen, Elias?”²⁵. Jainkoa zen, surmur apalean agertu zitzaiona. Hori berori gerta bide dakiguke (gertatuko ahal zaigu) euskaldunoi. Galdu egin dugu Jainkoa behin eta berriz bere presentzia errepikatzen zitzaizkigun euskal literaturaren orrialde gehiegitan. Presentzia nabarmenegia zen, erabat estandarizatua zein ihartua²⁶, gaur egungo gizakiengan sinesmen esperientzia sorrarazteko. Euskal literaturaren erlijio eremu ixilean sartu garenean, surmur apalean hasi gara soinu bitxiak entzuten: txalapartarena, ote? “Non hago” abesti zoragarriaren oihartzuna? Noizbait, agian, ageriago egingo zaigu ahotsa: Zertan zaude hemen, euskaldun seme/alaba hori? Non da anaia?²⁷



¹ LERTXUNDI, A., in MARTÍNEZ F. DE LARRINOA, G., “Jainkoa XX. mendeko euskal literaturan (1)”, *Hemen*, 5, 2005eko urtarrila-martxoa, 61. or.

² MITXELENA, L.: *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1966, 18 or.: “Una de las características más señaladas de la literatura vasca es el predominio desmesurado de las obras de carácter religioso sobre las profanas”.

³ Euskal *Maiztasun hiztegia*-n, (bizkaiera arloan, eta lehenengo ehun postuetan), 1900-1939ko garaian *Jaungoiko* hitza 16. postuan dago; 1940-1968ko garaian 17. tokian *Jaun* hitza agertzen zaigu eta 21.ean *Jaungoiko*; 1969-1990 artean *Jaungoiko* hitza galdu zaigu eta *Jaun* 78. postuan agertzen da. 1991-1999ko tartean ez da ageri *Jaun* eta ezta *Jaungoiko* ere; *Jainko* hitza ehungarren postuan ageri da. Ikus “XX. mendean gehien idatzitako hitzak”, *Argia*, 05.05.22, 1993 zk., 53-54 or.

⁴ Hegoaldean inprimatutako lehendabiziko liburua Sancho Eltsoren katixima izan zen. Ikus BIDADOR, J., *Argia*, 05.02.27, 1981 zk., 25-29 or.

⁵ MARTINEZ DE PIQUER; VALVERDE, José M.: *Historia de la Literatura Universal*, 4, Planeta, Barcelona, 2002, 16 or.: “El canon de la lengua italiana es dentro del toscano, el florentino antico, empleado por los tres grandes del Trecento: Dante, Petrarca y Boccaccio”. GARCIA TRUJILLO, S., *Euskarazko Bibliak*, Mensajero, Bilbao, 1999, 15-17 or.

⁶ MITXELENA, L., “Sarrera gisa”, in *Etxepareren olerkiak*, Donostia, 1968, 5-15 or.: “Euskal-literaturaren sororan bertan... badira zenbait eliz-liburu eder, prosaz naiz itz neurtuz..., larre-lore ikusgarriak nonnai bezain ugari, ... eta usai-oneko landuagoren bat edo beste...”.

⁷ Luis Villasante.

⁸ MITXELENA, L., *Egan*, 1957 (3-4), 225 or. Bizkaiera klasikoaren eratzailleak “los Mogueles, el Padre Astarloa, Fr. Bartolomé y el Padre Uriarte” izan ziren. Ikus VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Arantzazu, 1979, 46 or.

⁹ MITXELENA, L., *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1960, 148-151 or. ARANALDE, J. M., “Itzaurre-gisan”, in ORIXE, *Jainkoaren billa*, Etor, Bilbao, 1971, 6. or.: “Orixe’k etzerizkion, Jainkorako ez beste liburukin ezer askorik egin zunik; baña misala ta *Aitorkizunak* eta *Barne-muinetan* auekin eta, batipat, oraingo onekin, erriaren alde zerbait aundirik aterako zun ustetan juna degu”.

¹⁰ Abadeak, Fraideak, Erlijiosoak... MITXELENA, L., *Historia de la literatura vasca*, o. a., 33. or. “Esta abundancia resulta aún mayor en la antología del padre Onaindia, que ha dado el título de ‘padre’ a algunos autores que, a lo sumo, no pasaron de ser padres de familia”.

¹¹ *Hinki-Hanka*, Elkar, Donostia, 1978. *Herri honen Erraietan*, Maiatz, Baiona, 1985. *Bizitza Pilpirak, Nafarroari poema irekia, Herri Honen Erraietan*, Maiatz, Baiona, 1994. LASA, X., *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitza eta Pentsamendua*, EFA, Donostia, 2000. *Manex Erdozaintzi-Etxart (1934-1984) esperantza baten lekukotasuna* (Argitaratugabea). ORTIZ, A., “Manex Erdozaintzi-Etxart. Bibliografia”, *Jakin*, 86 zk., 95eko urtarrila-otsaila, 27-38 or. Ale berean Joxe Azurmendiren eta Itxaro Bordaren artikulua interesgarri bana daude. “Manex Erdozaintzi-Etxart. Pentsamenduaren eta literaturaren iturriak”, *Jakin*, 143 zk., 04ko uztaila-abuztua, 11-48 or. *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitzaren eta literaturaren konpromezua* (Vie et oeuvre de Manex Erdozaintzi-Etxart), Doktorego tesia.

¹² RATZINGER, J. (1985), in MESSORI, Vittorio: *Informe sobre la fe*: “El Vaticano II se encuentra hoy bajo una luz crepuscular. La corriente llamada ‘progresista’ lo considera completamente superado desde hace tiempo y, en consecuencia, como un hecho del pasado, carente de significación en nuestro tiempo. Para la parte opuesta, la corriente ‘conservadora’, el Concilio es responsable de la actual decadencia de la Iglesia católica... Resulta incontestable que los últimos veinte años han sido decisivamente desfavorables para la Iglesia católica... Mi diagnóstico es que se trata de una auténtica crisis que hay que cuidar y sanar... ¡Cuántas antiguas herejías han reaparecido en estos últimos años bajo capa de novedad!... Los resultados que han seguido al Concilio parecen oponerse cruelmente a las esperanzas de todos, comenzando por Juan XXIII y, después las de Pablo VI. Los cristianos son de nuevo minoría, más que en ninguna otra época desde finales de la antigüedad”.

¹³ Honetaraxe, Jose Azurmendiren ahotik.

¹⁴ VILLASANTE, L., “Ataria”, in GANDIAGA, B., *Elorri*, Arantzazu, Oñati, 1962, 19. or.: “Goratasun edo mailla ontako gauzarik ez tala egundaino egin gure izkuntzan esango nuke nik”. MITXELENA, K., *Egan*, 1962 (1-3), 85 or.: “Neroni ere, gutxi gorabehera, iritzi berberekoa nauzue. Bere eran eta taxuan -besteak beste, eta iñor gutxietsi gabe- nekez ager daiteke Gandiagaren neurrikorik”

¹⁵ MARTINI, C. M., *La audacia de la esperanza*, Verbo Divino, Estella, Navarra, 2005, 50 or.: “No una ética fundamentada sobre el deber (*debes* ser así), sino fundamentada en el Espíritu, en el *poder ser*: tú *puedes* hacer más, amar más, creer más, esperar más... Una ética, pues, esperanzadora, alentadora, que invita a mirar más allá, a superarse; la ética del Espíritu que es creatividad, libertad, gozo, que no está anclada en el minimalismo, sino que tiene conciencia de poder gozar y dar siempre más”.

¹⁶ ZAMBRANO, M., “La religión poética de Unamuno”, in *Unamuno*, Debate, Barcelona, 2003,

¹⁷ Ikus ARREGI, R., “Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu”, *Jakin*, 27-28 zk., 1967, 23-37 or.: “... sarritan ikusten eta entzuten dugunez, euskal gaztedia fedea galtzen ari omen da. Nik, hori, pozgarria dela esan ditekela uste dut. Gizatasunaren aldetik, eta kristautasunaren aldetik ere bai, komeni da fede batzuk galtzea. Horregatik euskaltzaleok izan edo asmatu dugun Jainkoa ill behar dugula uste dut. Gizatasunarentzat, gizonaren liberazioarentzat, zaleturik burrukan gabiltzan kristauontzat Jainko hori idolo bat delako. Gizonaren liberazioarentzat kate eta eragozpen bat”.

¹⁸ Mat 10 31: “Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut nik ere Aita zerukoaren aurrean”.

¹⁹ “Galdera: Koldo Izagirrek XX. mendeko poesia kaierak delakoan dioenez, zu zara liburua bera artelan bihurtu zenuen lehena? Nola egin zenuen hori?”

Erantzuna: Gauza guztiei galdera bat eginda. Papera erabili behar duzu? Zer paper? Zer hizki mota? Nola idatzi? Lerro denak elkarren parean? Zer kolorerekin? Zer forma eman liburuari? Irudia behar du edo ez? Ahotsa entzun behar du? Gauza guztien inguruan galderak eginda sortu nuen liburua. Maisurik izan banu ez nuen horrenbeste galdera egin beharrik izango”. *Argia*, 1944. zk., 04.05.16.

²⁰ ACARDO, *De unitate et pluralitate creaturarum*, 1, 6: Deus a quo pulchrum est quidquid pulchrum est, et sine quo nihil pulchrum esse potest .

²¹ Ikus FORTE, B., *En el umbral de la Belleza*, EDICEP, Valencia 2004.

²² “Ama hil zaigu” eta “Ez ote zekien”.

²³ “Jesus Mari oroituz”.


²⁴ ENDOKIMOV, P., *La donna e la salvezza del mondo*, Jaca Book, Milano 1980, 13. or.: “No es el conocimiento el que ilumina el misterio, es el misterio el que ilumina el conocimiento. Nosotros podemos conocer sólo gracias a las cosas que no conoceremos nunca”.

²⁵ 1 Er 19, 11-13.

²⁶ Ez 37, 2.

²⁷ Has 4, 9.





ETXEBARRIA, Juan Manuel. *Astoa. Historiako astorik ospetsuenak.* Ibaizabal, 2004. 111. or.

Aspaldi-aspalditik irakurri dodaz Juan Manuel Etxebarriak idatzitako ipuin, esaunda eta bestelakoak. Baina beti alboan euki dodanez, nire bizimoduko beste osagari bat lez hartu dot, eta inoz ez dot horren ganeko ezer idatzi. Damu naz eta jakin badakit zorretan nagoana, baina modu berean, jakin badakit parkatuko nauena eta pozik hartuko dauzana lerro honeek, gauzeztanak izan arren.

Liburuaren egilea, edozer dala be, beti dago honegaz edo haregaz berba egiteko eta entzuteko prest. Halan ba, telefonoz deitu eta tartetxo batez alkarregaz berbaz ibili ginan, hau dala eta bestea dala. Liburu zer asmogaz idatzi eban jakin gura izan neban batez be.

Liburu hau hainbat komunikabidetan ikusi izan dot (besteak beste, *Begitu* Arratiako aldizkarian alkarriketa luzea agertu zan), eta honezkero esan beharreko guztiak esanda dagoz. Dana dala, nik idazlearen ahotik entzun gura izan dodaz liburu idatzikeran zerk eragin deutsan, nik irakurrikeran euki dodazan intuizinoak alde batera itxita.

Liburuan astoaren ganean idatzi eta entzun diranak batu dauz. Atxakia polita aukeratu dau helburu argi bategaz: herriko

altxorra euskera aberatsean eta bizi-bizian ipinteko erabili dau astoa. Irakurleak laster erreparauko deuto liburuan hainbat eta hainbat berba, esapide... interesgarri eta joskera aberatsa erabili dirala. Horrez gainera, liburuaren atzeko aldean, berba eta egitura bereziak hiztegi antzean batuta topaiko dauz.

Astoaren ganean idazteko ideia Gotzon Garaterengandik hartu eban, *Zakurra zeure laguna* liburutik, hain zuzen be. Liburuaren hasieran, apunte batzuk ipini dauz, Astoaren jatorria, Asto izenaren etimologiaz eta Astoa Euskal Herrian izenburupean. Horren ostean, holan egituratu dau liburu: astoa Biblian, astoa abestietan, astoa mitoetan, jazorikoak, esaundak, astoa fabuletan eta astoa literaturan. Egitura argi eta eroso, beraz, irakurlearentzat.

Baina egileak jazorikoak, fabulak, osatu, berreraiki egin dauz, esapide edo berba interesgarriak sartu ahal izateko, berba baten esateko, altxorrek gehitzea probokau egin dau. Horren adibide da, barbarako, Txirritaren astakumearen ganeko pasartean 'ketea' sartu ahal izateko istorioari egin deutson ukutua.

Irakurlea atoa konturatuko da astoa mundu osotik ibilia dala, eta mundu osoan dagozala horren ganeko istorioak: Txinan, Mesopotamian, Afganistanen... Istorioko hango liburuetatik aterata dagoz.

Beste kontu batek be nire atenzinoan geitu dau. Idazleak sano gogoan euki dauz era guztietako sensibildadeak, eta horreei inongo kalterik egitea saihestu gura izan dau. Adibide bi aipatuko dodaz horren erakusgarri:

-Bibliako testuak jazo dauzan lekuan, bersikuloak errespetatu egin dauz.

-Afganistango asto irakurlearen ganeko istorioan, Korana zan astoak mihinagaz erabiltzen eban liburu, olo-garauak jan guran; baina horrek nor edo nor mindu leikela eretxita, Koranaren lekuan inkunablea ipini dau idazleak.

Amaitzeko, nire berbok gehiegi ez luzatzeko, liburu honek beste liburu batzuk irakurtzera bultzatzen dauala esan behar dot. Egia hori ez da guzurra. Barbarako, aspaldian irakurrita neukan nik *Platero y yo* liburu, baina hemen aipatuta ikusi dodanez,

barriro hartu dot hori liburuori eta goitik behera irakurri dot, eta atzera be hunkitu egin naz geure baserrietako animalia txikitxo hain lagun ona izan daitekeela ikusita.

Astoa beti asto dan arren, bide gidari onena be bada. Eskatu daigun, ba, astoari bide onetik eroan daiala geure euskera lainabehera honetan. Eta guk geuk be egin daigun arre, eginbehar horretan guk geuk be zeresana daukagu eta.

Arantza Etxebarria Ithurrite



ASEL LUZARRAGA. *Karonte*. Elkarlanean, 2005.

Badirudi aspaldion berebeziko interesa biztu dala idazle gazteen artean zientzia-fikzioagaz zerikusia daben gaiak jorratzeko. Euskal literaturan ez da lar landu arlo hori, horregaitik oin argitaratzen diran liburuko garrantzi handia daukie munduko literatura guztietan hain zabal dabilen genero arrakastatsu honi guretik be bihotz eta hauspoa emoteko. Halaxe da, beraz, Asel Luzarraga bizkaitarraren *Karonte* izenburuko bigarren lana, zientzia-fikzioaren eta thrillerraren artean dagoan elebarria. Liburua idazle gazteak bultzatzeko VI. Igartza sariaren emoitza izan da. Izenak, behintzat, bizien eta hildakoen bitarteko lemazaina zan mitologia klasikoko jeinua gogorazazoten deuskun *Karonte* liburu hau izan daiteke euskeraz gaurko teknologiak eta informatika hainbeste azaltzen diran lehenengo lana. Baina Bilbon eta Tokion girotzen dan Aselen liburu honetan dana ez da teknologia, bere lanetan ohi dan moduan, pertsonaien arteko harremanak, sentsualidade erotikoa eta sentimentuak nagusitzen dira.

Amets, liburuko protagonista, luzaroan koman lo egon ostean biztu da bat-batean. Ametsek betiko bizimodura nahi izango dau itzuli jagoten egon jakon Naroa lehengusina argentinarraren eta Ainara neska-

lagunaren ondoan. Baina ezin, gero eta bitxiagoak diran gertakarietan ikusiko dau Ametsek bere burua. Mendebaldeko herri ustez demokratikoetako zerbitzu sekretuek prozesagailu bat ezarri deutse buruan jentea kontrolletako. Amets eta Naroa, gero eta alkarrengandik hurrago, batetik bestera ibiliko dira Ametsen gogoak kontrolletan dauen gailua indargabetzearren. Holan Japoniara ailegauko dira, hacker batengana. Bertan gauzak aldrebestu egingo jakez.

Hasikera-hasikeratik garbi azaltzen dan hari horretan Aselek barria ez dan gaia jorratu gura izan dau, kanpotik ezartzen jakun kontrolaren gaia hatan be. Gai hori askotan ikusi ahal izan dogu zientzia-fikziozko zine eta literaturan, baina gaur egun, garatu diran teknologiak bide dirala, inoiz baino erreala goa da, benetan gertatzen ez dago urrun; horregaitik be Aselen elebarria gaurko denporan kokatzen da. Eta Aselen liburu honek asko zor deutso zine eta literatura horri, eta egileak berak autortzen dauen lez, japoniar komikiari be. Asel Luzarraga japoniar kulturaren miresle handia da, ez da, beraz, debaldekoa elebarria Tokion girotu izana. Bertako ezaugarriak zehatz-mehatz deskribatuta dagoz, hori dala eta liburuja Japoniari eginiko omenaldi gisa be hartu leiteke.

Karonte elebarria abentura bizia da, berbakera xeheaz idatzia, batzuetan sentimentuak nagusitzeko asmo horretan akzio apur bat falta arren, akzioa eta etengabeko suspensea diralako elebarrioren ezaugarri behinenak. Akzioa, suspensea eta batez be sinesgarritasuna behar dira zientzia-fikzionoko lan on bat egiteko. *Karonte* ez da horretan erabat borobila, ahalegin duina izanik be. Nire ustetan gaiak eta liburuaren sinpletasunak irakurle jakin bat erakarriko dabe, irakurle gaztea aurki.

Alvaro Rabelli

